


# ttiipi-ttapa

206. zenbakia • 1997ko maiatzak 22 • XVI. urtea



Iñaki LIZASO

## Doneztebeko erremontelaria

Bigarren mailako finala galdu berri du eta berak dioen bezala, «dauden txapelketa guzietan bigarren gelditua naiz, baina ez dut sekula txapelik irabazi». Halere, kontent dago enpresak ematen dizkion aukerarekin eta bi urteren buruan, lehen partiduetan asentatzea espero du. **ISP 28**

## 4 Erreportaia: Gizarte Segurantzaren bulego berria Donezteben

Datorren astelehenean irekiko ditu atek probisionalki. Zerbitzu osoa euskaraz hartzeko dugun eskubidea aldarrikatu dute hainbat alkate eta kolektibok.

## 6 Gaurkotasuneko Gaia: Larungo obrak

Ande Luberriaga Azkaingo alkatea eta Ideki elkarteko Filipe Lakarraren iritziak.

## TTIPI-TTAPA honekin batera: Etxetik Plazara

IKAko euskaltegiek argitaratzen duten aldizkari didaktikoa.




## ISP KARRAPE Irratia Leitzako irratia

“Nahiz eta bi ordu terdiko emisioa izan, prestaketa lana gogorra da”





*Osa ezazu zure sukaldea  
gustoko duzun atea aukeratuz*



**Bidali TTIPI-TTAPA  
herritik kanpo  
bizi diren  
lagun edo  
familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

 **631188**

## DATUAK.....

❖ *Karrape Irratiko lan taldea Unai Zabaleta (arduraduna eta teknikoa) eta Amaia Astibia eta Kontxi Zozaia esatariek osatzen dute. Leitzako euskaltegiko gainerako irakasleek ere laguntzen dute.*

❖ *Unai Zabaletak ezik, aurretik ez zuten esperientziarik irratigintza munduan. Hasieran, erritmoa hartu arte, gogorra egin zaie.*

❖ *Otsailaren 24an hasi ziren eta udalak lehiaketa atera arte probisionalki ari dira.*

❖ *Beraien ustez, programazioaren helburua jendeak zerbait ikastea da, euskara eta formazioa lantzea. Hor nabari omen da euskaltegiaren eragina.*

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
JOSEBA AZPIROZ

👉 **KARRAPE Irratia** *Leitzako Irratia*

## “Karrape irratia, parte hartu nahi duen edonorentzako irekia dago”

### ZEIN EGOERATAN DAGO GAUR EGUN KARRAPE IRRATIA?

Udal irratia izaten segitzen du. Diru guzria Leitzako Herriko Etxetik dator. Nafarroako Gobernuak euskara erabiltzeagatik ematen duena ere udalak gestio-natzen du. Lehiaketara atera arte kontratu probisionala egin du gurekin. Astegunez bost egunetan emititzen dugu, goizeko 11,30etatik 2etara. Gainerako orduetan Euskadi Irratiaren seinalea sartzen dugu.

### LEITZATIK LEITZARAKO IRRATIA IZATEKO ASMOA DUZUE EDO INGURUKO HERRIAK ERE UKITU NAHI DITUZUE?

Orografikoki nahiko toki zaila da. Berez, irratia Leitza eta Areso hartzen du, nahiz eta ardua ekonomiko guztia Leitzako udalaren esku egon. Bereziki Leitza zuzenduta dago, baina tarteka egiten ditu konexioak inguruko herriekin.

### ZER LANTZEN DUZUE PROGRAMAZIOAN?

Programazioari kultura eta formazio alde-tik edukia ematen saiatu gara beti. Hezkuntza, osasuna, kanpo kultura eta bidaiak, euskara, herriko bizimodua. Zerbitzu-programak ere badaude (agurrak, abi-



«Gehien bat etxean dagoen jendeak aditzen du Karrape Irratia»

suak...).

### ETA ZER DA JENDEA GEHIEN ADITZEN DUENA? NOLAKOA DA KARRAPEREN ENTZULEGOA?

Zaila da esatea, baina jende askok programazio osoa aditzen du. Ama gazteek hezkuntzari buruz hamabostean behin sikologo batekin egiten dugun pro-

grama segitzen dute. Emisio ordua dela eta, gehien bat etxean dagoen jendeak aditzen du, etxeoandreak, baserritarrak...

### PROGRAMAZIOAN ALDAKETARIK EGITEKO ASMORIK BADUZUE?


Gazteekin saiakera bat egiten ari gara, baina orain ez da garairik hoberena, examenetan dabilzalako. Beraiek beraientzat egindako programa bat izatea nahi gugu, nahiz eta guk lagundu.

### LAISTER LEHIAKETA ATE-

### RAKO DU UDALAK. IRRATIAN SEGITZEKO PREST?

Lehiaketa maiatza edo ekainerako aterako zela esan zuten, baina oraindik ez dugu erabaki aurkeztuko garen edo ez. Lan handia da. Nahiz eta bi ordu terdiko emisioa izan, pres-taketa lana gogorra da, produkzio propioko programa asko baitaude. Euskaltegiko lana gehi hori... pilatu egiten zaigu askotan. Hortaz baloratu behar dugu, beste modu batean antolatuta...

❖ *“Beti bada zer hobetzerik, ez gara profesionalak eta askotan harrapatua gelditzen zara: hitzetan motz, hanka sartzen duzu... mikrofonoak ere zerbait inposatzen du.”*



LABeko ordezkariak eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea ez ziren bat etorri CAISSari buruzko zenbait puntutan.

Zonaldeko alkatea, Sunbilla

# Gizarte Segurantzaren bulego berria Donezteben

**Gizarte Segurantzak maiatzaren 26an informazio-bulegoa ideki nahi du Donezteben, zerbitzu hori gure eskualdera hurbiltzeko asmoz. GSHIZ (CAISS espainieraz) izena hartuko duen bulego honetan, informazio eta atentzio espezializatua jasotzeaz gain, pentsioen aurrekalkuluak edota eritasun-bajak tramitatu ahal izanen dira hemendik aitzinera. Hiru langile ariko dira lanean, eta itxura denez horietatik 2 euskaldunak izanen dira, baina hirugarrena, arduradun izanen dena, erdalduna. Gizarteko hainbat sektorek salatu du egoera hau; Zerbitzu osoa euskaraz hartzeko dugun eskubidea defendatzen dute.**

TESTUA: ASIER GOGORZA

**d**onezteben zentru berria ireki behar du Espainiako Gizarte Segurantzaren Institutuak. Heldu den astelehenean, hilak 26, martxan paratzekoa da zerbitzu berri hau, eta bere funtzioa Gizarte Segurantzaren arlo desberdinei buruzko informazioa eman eta jendea atenditzea izanen da, pentsioak direla, bajak...

**Arduraduna erdalduna izanen da** Hasiera batean bulegoan lan egiteko behar diren hiru langileak bertze bulego batetatik ekarriko dituzte eta hoietatik bi euskaldunak dira, horietako bat zonaldekoa (ezkurratarra). Baina arazoa bule-

goko arduraduna izendatzerakoan bixtu da, euskaraz ez dakiela-eta, gizarteko hainbat sektore kexu agertu baita. Gizarte Segurantzako LAB sindikatuak adierazi duenez, «arduradunaren lana eskualdean Gizarte Segurantzarekin nolabaiteko erlazioa izan dezaketen gizarteko sektore eta pertsonekin harremanetan jartzea da, eta nekez egingen du lan hori behar den moduan, euskaraz ez badaki». Beste sindikatu batek, ELAk alegia, hauxe erran du honen inguruan: «gure sindikatuak uste du Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionalean badagoela CAISS berri honetan lan egiteko jende prestatua, eta euskalduna gainera».

**Bilera informatiboa**  
Gai honen inguruko xe-

hetasunak argitzeko maiatzaren 9an egin zen bilera, Miguel San Miguel Doneztebeko alkate eta GSHIZaren afera guziaz bideratzeaz arduratu denak zera argitu zien bertan bildutakoei: «CAISS-ean errotulazio guziaz, señalizazioa eta inpresok bi hizkuntzetan izanen ditugu, beraz minimo batzuk betetzen dira, eta nik uste, baldintza hoietan hasten ahal da lanean». Bilera honetara, Iruñean Gizarte Segurantzaren lan egiten duten LABeko bi ordezkari agertu ziren, eta zenbait matizazio egin nahi izan zuten. Batetik, arduradun plazarako aurkeztu ziren 10 langileetatik batek euskaraz ongi zekiela erran zuten, «baina zuzendaritzak, sindikatuok eskatu bezala baremo bat ezarri gabe aukeratu du, eta euskaldun horren es-

## Zer eskeiniko du zerbitzu honek?

### Lehendabiziko fasean:

- ☞ Informazio orokor espezializatua.
- ☞ Bertze erakundeetara bideratzea.
- ☞ Pentsioen aurre-kalkuluak egitea.
- ☞ Pentsioen birbaloratzeen harat-honatak azaltzea.
- ☞ Prestazioen zertifikatuen bidalketa.
- ☞ Tramitean dauden eskariei buruzko informazio puntuala.
- ☞ Osasun Laguntzaren arloko gestioak.

### Bigarren fasean:

- ☞ GSHIZekin harremana duen edozein pertsona eta erakunderenganako hurbiltze kanpaina: Gizarte Laguntzaile, udaletxe, enpresa, pensionisten elkarteak...
- ☞ Pentsioen aurre-kalkuluak bultzatzea.
- ☞ Aldibateko Eritasun (baja) tramitearen eta Amatasun tramitearen deszentralizatzea eta hemendik bideratzea, GSHIZak lortzen duen kudeaketa ahalmenak baimenduko balu.

al-ordezkarari izan zen bilera horretan: bertzeak bertze, Berako kkoa, Iturengo, Leitzakoa, Arantzakoa, Goizuetako alkatesa...

kaera atzera bota dute». Doneztebeko alkateak, «orain betetzen duen postua maingu geldituko litzateke euskalduna den langile hori bidaliko balute, eta gainera, dudan jartzen dut orain datorrenaren prestazio maila berdina izanen ote duen» erantzun zien. LABekoek, berriz, GSHIZeko arduradunaren betebeharrak erreparatu zituzten banan-bana: «ez da zaila arduradunaren lana ikastea, 3 hilabetetan ikasten ahal du informatika menperatzen duen edozeinek, baina euskara ikasteko 8 urte behar dira gutxienez» ondorioztatu zuten.

### Hirutik bi edo hirutik hiru

Bilera horretarat agertu ziren alkateek ere bota zuten beren iritzia. Horrela, Arantzako alkateak argudiatu zuenez, «guk exigitu behar duguna 3 langiletik hirurek euskaldunak izatea da, gure eskubidea delako, eta ezin dugu ahanzi legea betetzea baizik ez dugula eskatzen». Eritzi berdinekoa zen Leitzako alkatea, Mikel Ilarregi, bere ustetan errega goa baita hasieratik langile euskaldunak jartzea, gero erdaldunak euskalduntzea baino. Zentzu honetan, Goizuetako alkatesak gogoratu zuenez, «Goizuetan ere horrelako arazoak izankatu ditugu, mediku eta irakasle erdaldunekin, baina euskaldunak eskatu eta eskatu, azkenean eman izan dizkigute», eta bere iduriz, kasu honetan ere berdina egin beharko litzateke.

**Ez zen akordiorik lortu**  
Malerrekako Mankomunida-

dearen egoitzara hurbildu ziren guziek, zerbitzua euskaraz izatearen garrantzia azpimarratu zuten, baina batzuek zerbitzuari lehentasuna ematen zioten, eta hoiaren artean, Iturengo alkateak: «Nik prioridade emanen nioke zerbitzuari, eta hiruetatik bi euskaldunak izatea, bada zer bait», aipatu zuen Joxe Iparragirrek, baina «gure eskubidea da euskaraz jasotzea» dela zehaztu zuen aldiberean.

Ondorioz, zonaldeko alkate guziek sinatutako idatzia bidaltzea proposatu zen, hiru langile euskaldun eskatuz, baina hondarrerako ez zen akordiorik lortu denen artean. Hortaz, udaletxe bakoitzak bere idatzi propioa egitea erabaki zen, gero UEMAREN izenean edo igortzeko.

Miguel San Miguel alkatea ez zen hagitik konforme azken neurri honekin, bere ustez zerbitzua martxan ez paratzeke arriskua baitago, euskararen kontuarekin sobera tematu ezker. Hori pentsarazten dioten arrazoiez galdetzerakoan, «nik zuek ez dakizkizuen gauzak dakizkitelako» izan zen bere kontesta, eta «alde guzietatik presione haundiak badirela» gaineratu zuen. ■



Doneztebeko karrika honetan kokatuko da CAISS bulego berria, udaletxe zaharra zegoen etxean

### Zein herritarako?

Arantza  
Arano  
Areso  
Baztan

Bera  
Donamaria  
Etxalar  
Elgorriaga

Eratsun  
Ezkurra  
Goizuetako  
Igantzi  
Ituren  
Labaian

Leitza  
Lesaka  
Oitz  
Bertizarana  
Saldias  
Doneztebe

Sunbilla  
Urdazubi  
Urrotz  
Zubieta  
Zugarramurdi

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.400 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

[ttipi@encomix.es](mailto:ttipi@encomix.es)

e-mail:

[ttipi@mail.sendanet.es](mailto:ttipi@mail.sendanet.es)

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karnele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Gaizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Sasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxeste, Pablo Mendiburu, Joseba Garabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mikel Gerendiain, Jacqueline, Eli-kabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

**primategia:** Graficas Ona.

**ttipi-ttapa** ez du bere gain har-zen derrigorrez, aldizkarian adie-azitako erranen eta eritzien eran-zukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Be-  
a, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-  
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta  
Sarako udalak, Bortziritako Eus-  
kara Mankomunitatea, Malerre-  
kako Zerbitzu Mankomunitatea,  
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-  
tea...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Larungo obrak

#### Arrazoin batzuk faltsuak dira, eta hoiiek nahi ditugu salatu



Filipe LAKARRA  
IDEKI elkartekoa

Frantziako ingurune ministroak Azkaingo Kontseiluaren proiektua onartu du berriki, eta erabaki hori gibelerat bota dezan, 4.000 karta-postal bidali dizkiogu, proiektua salatu. Gu proiektu orokorraren aurka gira, ez proiektuko puntu guzien aurka, ordea. Egia da pottokazaleek etxolak behar dituztela, baina zergatik ez dituzte egiten orain dauden tokian, hau da, proiektuak agertzen duena baino pus-kaz beherago. Lantatzeak egitearekin ere ados gira.

Gure jokatzeko manera ez da laborarien kontrakoa, inondik ere. Baina guk ikusten dugu arrazoin batzuk faltsuak direla eta hoiiek salatu nahi ditugu. Laborarien izenean eraiki nahi dituzte etxolak, bainan hoietakoa lauk ez dute laborantzarekin harremanik, erran nahi baita, otoiategiak eta ibilkariak gerizatzeke hiruak. Gukez dugu hoiien beharrik ikusten. Bertzaldez, bide zaharra antolatzeaz gain, bide berri ainitz eginak dira, batzuk sekulan biderik ez zegoen lekuetan. Harrespilen ingurutik doaiena, errate baterako. Mendia den bezala behar da atxiki.

**Bertzaldez, bide zaharra antolatzeaz gain, bide berri ainitz eginak dira, batzuk sekulan biderik ez zegoen lekuetan. Harrespilen ingurutik doaiena, errate baterako. Mendia den bezala behar da atxiki.**

#### Proiektua aitzina doa, batere arramantzik egin gabe

Andde LUBERRIAGA  
Azkaingo auzapeza

Batzordeak baimena eman du eta ministroak ere dossierra sinatu du eta horrek erran nahi du proiektua aintzina doala, batere arramantzik gabe eta batere problemarik gabe.

Gaur egun badira 50-60 bat kilometro orgabide, eta guk egin nahi duguna hoitariko 5-6 km antolatzea da, traktoreak hortik ibiltzeko gisa, bertze fitxik ez. Bertze mandobideak, dauden bezala, ibilkarientzat utziko ditugu. Gainera, ez dugu zimenta gramo bat ere bota behar, dena lurra eta harria.

300.000 liberetik goiti pasatzen diren obrak enkantean ematera behartuak gara, eta holaxe egin dugu. Eginen diren 3 etxolak,

pottoken eritasunak sendatzeko tresneriak eta sendagaiak gordetzeko dira, eta toki ttiki bat izanen dute pottokazaleek gosalduek ahal izateko. Gero badira bertze lau etxola ttiki, hoitakobat otoiategi ttiki-ttiki bat eta bertzeak ibilkarientzat estalpe ttikiak, euria hasten duen gerizpea izan dezaten. Beraz, hiru etxola haundi eta lau ttiki izanen dira eta 1.800.000 libera kostako da.

Kazetetan iduri badu ere Azkainen zernahiko iraultza badela kontu honekin, hemen arront goxo da, ez dago zenbait zororen zalaparta bertzerik.

**Kazetetan iduri badu ere Azkainen zernahiko iraultza badela kontu honekin, hemen arront goxo da dena, ez dago zenbait zororen zalaparta bertzerik.**

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta

## BOTA BERTSOA



## Aurten ez da Baztandarren Biltzarra ospatuko

Mikel ALTZUART (Arizkun)

Neurria: Hamarreko haundia

*Norbaitendako ulergarria  
Bertzendako harridura  
kezka zar batek harrapatu du  
hondarrik bere helmuga  
non altxatzen da garai bateko  
ilusio, gogo hura  
baztandar denek jarri beharko  
gure mailako ardura  
kulturak duen itxura indartuz  
ez itxuraren kultura.*

*Antolakuntzan, orgak apaintzen  
laguntza exkas xamarra  
jende aunitzen gibeletik hor  
beti ibili beharra  
nahiz ta kanpotik ederra ikusi  
barnean hazi da arra  
modu honetan nola gozatu  
gusto gabeko sagarra  
baztandar denen biltzarra ez bada  
zer Baztandarren Biltzarra?*

## IRAKURLEAK MINTZO

### Nekazariei hitz batzuk:

Ez nuke nahi orain erran behar dutan hunengatik nekazariak gaizki hartzea, baina, nere ustez arazo bat bihurtzen ari den afera batetaz mintzatu nahi dut. Ez dago ukatzerik gure mendiak eta bazterrak orain arte ongi eta garbi mantendu badire, hau nekazarien meritoarengatik izandu dela: betitik haiek izan dire bidexka bazterretako larrak garbitu dituztenak, mendiko urak bideratzen dituzten urbideak edekiak kontzen dituztenak, ... eta horrela mila lan tiki beren borondatez eta nihorrek ordaindu gabe eginez gure inguruko natura behar den bezala mantendu dute (gure ekologista haundienak izan dire).

Bainan urte batzuetatik hurat "modernitateak" gure base-rietaraino ailatu direla eta nekazariak, seguraski sobera konturatu gabe, kalte haundia egiten ari dire berek orain arte hain ongi zaindu izan dituzten eremuetan: balotak eta siloak egiteko erabiltzen diren plastiko-ari buruz ari naiz.

Mendian bueltaxka bat eman eta ez da batere arraroa edozein larretan, zerrakuretan, lohi tartean... delako plastiko zikin hauen zatiak ikustea. Lekutan zabor-toki bat dela iduri du, bertzetan kitoak akanpatuta egon direla. Bainan makurrena da plastikoa ez dela usteltzen eta nahiz eta mila puska

egin ez da nioiz desagertuko, zikinker hori betikoz hor geldituko zaigu. Eta gaur egun oraindik ez bada arazo sobera haundia ere, martxa huntan pittaka-pittaka bazter guztietan agertzen hasiko zaigu. Peningarria da, neretzat seurik. TTIPI-TTAPAK ematen duen aukera hunekin, nekazari guztiei pittat pentsarazi nahiko nieke gai huni buruz. Baten batek erraten ahal du "ez dela hainbertzetarako", "hau baino arazo larriagoak badirela" eta arrazoina du, baina bakotzak ahal duena egin behar du gero bertzei ere eskatu ahal izateko. Bertzerik ez, milesker nere iritzia kontutan hartzen duzue-nei.

KORO IRAZOKI (ZUGARRAMURDI)



### Etxalarko udala, euskalduna?

Igerilekuko lanpostuetarako deialdia kaleratu zenean, Etxalarren, euskaraz eta erdaraz egin zuten. Udaletxera eskaria egiteko orrien bila joan ginenean berriz, lanpostuak lortu ahal izateko bete behar diren baldintzak eta lanpostu horiek beraiekin dakartzaten egin beharrik esplikatzeko zituen orria erdara hutsean eman ziguten. Zuzenbidez, eta gainera Nafarroako legeak agintzen duenez, euskaraz hurbiltzen denari, agiriak euskaraz eman beharko zaizkio.

Hemendik aitzinera honelako-

rik gertatuko ez delakoan...

IRATI LUJUA ETA JON SANSINIENA



### Garagardo Besta

18.000 Watioko potentzia musikan eta 120.000 argitan entzuten dira Iruritan ekainaren 14an, Garagardo Bestaren lau-garren edizioan.

1994eko uztailean, gazte talde batek zerbait desberdina egin nahirik sortu zen jai hau. Kontzertu bat egiteko aukera ikusi, eta honi garagardo mota desberdinak dastatzeko ideia gehitu genion.

Beste hau ondorengoan datza: 2.000 m<sup>2</sup>tuko barrutian 7 txozna (8-14 metrokoak) egongo dira, zeinetan 30 garagardo ezberdin aurki daitezkeen. Bitartean, talde ugari eman dako kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu (inkesta baten bidez, jendearen iritzia kontutan izan dugu taldeak hautatzeko): Heavy, Trash, Reggae, Folk, Celta, etab... Bederatzi talde arituko dira arratsaldeko 7etan hasita: Komando Moriles, Sustraiak, M-Clan, Tapia ta Leturia Band, Etsaiak, Aspid, (Gironakoak), Pilt (hard funk, hip-hop, hard-core, rock kañeroa, euskaldunak), King Mafrundi (reggae, ipar euskaldunak) eta Discipulos de Dionisio (porno zikinaren zaleak, euskaldunak). Adi egon!!

IRURITAKO GAZTEAK

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

*txiki txoko*

## Haur eta gaztetxo arropa (0tik 16 urtera)

Tfnoa/faxa:  
943-619634  
Juan Arana  
galeria, 10  
**IRUN**

 **mugan**

Mugan Elkarteko  
komertzioa

## Jaioberriendako artikuluak:

Seaskak, kapazuak, saskiak, haurkotxeak eta zure haurtxoarendako behar duzun guzia.

*Bisita gaitzazu, harrituta geldituko zara.*

 **Joxelu BERASATEGI** Beratik

## Gazte Jokoak Beran



**G**reziatik Hondarribira, eta handik zuzenean Beraraino. Beraz, egia errateko, ideia ez

da preziski originala. Ez, edo ez arrontian. Ez dugu deus berririk asmatu. Baina orduan, Joko hauen arrakastaren arrazoa originaltasuna ez bada, zergatik halako harrera ona? Nere ustez honen "trukoa" jendearen erantzun eman korrean datza.

Alde batetik antolatzaileok gazteen aisialdia aztertuz eta huts nabarmena su-

**Jendearen disposizioa da beti faktorerik garrantzitsua. Eta kasu honetan, erran bezala, txalogarria izan da gazteena (aunitzetan hain fama txarra izaten duena helduon artean).**

matu ondoren, jokoan proposamen honekin espazio berri bat idekitzen saiatu gara, gazteei hitza emateko asmoz.

Bertzaldetik gazteak ilusio eta borondate haundiz etorri dira probetara, eta honeri eta beren borondate onari esker joan den urtean astero-astero egin genituen probak ospatu ziren. Ez zait erraz ahantziko eguraldi txarragatik suspenditu genuen frogak. Suspenditu eta bere lekuan azkeneko borts minututan frontoian "al pañuelito" jostatzeraz joatea erabaki genuen. Eta ikustekoa zen, hango giroa... haurrak bezala. Honekin zera erpepi-

katu nahi dut: jendearen disposizioa dela beti faktorerik garrantzitsua. Eta kasu honetan, erran bezala, txalogarria izan da gazteena (aunitzetan hain fama txarra izaten duena helduon artean).

Aurten, iazko esperientziaren ondotik, jokoan antolamenduan partehartzeko gehiago eskatu dute gazteek. Eta hona hemen aurrean frogak bakoitzarako antolatzen diren gazte-komisioen funtsezko arrazoiak. Eurek antolatu eta eurek jostatu. Dibertitzeko manera ona. Eta didaktikoa, zergatik ez?

Kontent egoteko bertze arrazoi bat hauxe da: kirolan fuego ari direnak eta bertzaldetik eguna kordiona edota kitarra elektrikoaren gainean edota beste edozein arlotan ari direnak, eta nola ez, ostatuan patxada ederrean dagozi-

nak, denak nahasi direlako aktibitate honetan, nahiz eta kolore desberdineko kamiseta erabili, denak denekin eta denetik egin, kirola, artea, zientzia etab.. Ideia honekin probak arront desberdinak antolatzen dira: Jinkana kulturala, frogak fisikoren bat, arte arloan parodiak eta frogak plastikoenak, ingurunearen garbiketaren frogak ahanzi gabe. Dena den, hurrengo urte-etako espero dugu adin tartea zabaltzea partehartzailen artean. Ea berrogei eta berrogeitamarko eta... gazteak animatzen zareten behingoz!

Eta zuei gazteak, animo eta segi, beti aintzina!!!

 **Mikel Ilarregi** Leitzako alkatea

## Gizarte Segurantzaren bulegoa dela-eta



**O**stiralean bi aste egingen ditu Mallerrekako Mankomunitateak deiturik, Doneztebe-

ko bulegoan bildu ginela zonalde honetako udal ordezkariok.

Gaia: Donezteben (CAISS) edo Gizarte Segurantzaren Harrera eta Informazio Zentro baten irekidura. Bilera informatiboa omen. Baina halabeharrez, ordezkarien artean erabakiren bat hartu behar genuela koan nago. Indar, grina, gogo, erantzukizun haundia goa izanzen zukeen erabakia noski. LA-Beko ordezkariak euren eritzia azaldu zuten. Behin eta berriz 'ez zeuden'

hitzak Doneztebeko alkateak aipatzen zituen baina arazoa kokatzeko ezintasuna edota nahia agian, nabaria zen. Saiatu ginen, argi saiatu ere, -pelma halakoak!- etorriko diren langileetatik egokiena zein zen aztertzea alperrikakoa zela. Guk euskal zonaldeko herritar eta ordezkariok legeak eskeintzen duen esku bidea aldarrikatu besterik ez genuela eginen. Euskararen Legearen arabera herritar guzuen eskubidea da Administrazioarekin, hautatzen den hizkuntza jasotzeko. Horregatik GSHIZ (CAISS) bulegoko langile guztiak euskaldunak behar dute izan eta gaur egun -maila hauetan dudarik ez

egin— elebidun, hau da, zerbitzu on bat euskaraz nahiz erdaraz (gazteleraz) eskeintzeko posibilitatea duen bakarra euskalduna da, ikasketengatik... edo dena delakoarengatik erdera, gazteleraren ezagutza nahikoa baitu, eta ez alderantziz.

Ez dakit, irakurlegorik balez, hau ulertuko den ala ez baina mezu erraz eta sinplea da: garai gaude arazorik gabeko zerbitzuari hasera emateko, oker hasitakoa zailagoa

**Garaiz gaude arazorik gabeko zerbitzuari hasera emateko, oker hasitakoa zailagoa baita moldatzen. Kasu honetan errezagoa da zerbitzu euskalduna eskeintzea, ondoren zerbitzua ematen dutenak euskalduntzea baino.**

baita moldatzen. Kasu honetan errezagoa da zerbitzu euskalduna eskeintzea, ondoren zerbitzua ematen dutenak euskalduntzea baino.

Hala ere esan, batzuren inpresioa bilera amaitu ondoren ez zela batere baikorra izan, alderantziz baikorrik. Gure zonaldearekin dugun konpromezua ez zen bete, zerbitzuari bai baina nolako zerbitzua den ere erreparatu beharko genioke. Doneztebeko ordezkariak gehiegi pertsonalizatu zuen gaia. Berak eginiko lanak, ez ditugu zalantzan jartzen, baina ezin daiteke "nik bada-kizkit zuek ez dakizkituzten gauzak" edota horrelakorik esan, gaia denontzat baita garrantzitsua.



PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egin 97-V-11

«Bi motatako izaera dago nere baitan. Eskultura aita eta atautxiaren aldetik heldu zait, eta sukaldea berriz, ama eta amatxien aldetik».

**Xabier SANTXOTENA**  
Gasteizko «El portalón» jatetxeko chef-a eta eskultorea  
Egin 97-V-11

«Baztandarren Biltzarra ez ospatzea, nolabaiteko porrota da baztandarrontzat. Gure


anaitasun besta da eta ez bada ospatzen, zer gelditzen zaigu?»

**Ana Mª MARIN**  
Elizondoko margolaria  
Diario de Noticias 97-V-7

«Txikitan asko aritzen nintzen aizkoran; beno, abildaderik ez genuen eta gehienbat egurrak izorratzen gehiago mozten baino»

**Mikel SARALEGI**  
Leitzako harrijasotzailea  
Egin 97-V-12

- ◆ **Janari gustokoena?**
- ❖ Arraia, batez ere rodaballoa.
- ◆ **Klienterik leialenak zein dira?**
- ❖ Euskaldunak, dudarik gabe.
- ◆ **Etxean horrenbertze gizonetzko izanik, zergatik dira zerbitzari guziak emakumeak?**
- ❖ Etxe honetan ohitura bezala gelditu da hori, nere ustetan.
- ◆ **Seme gaztea ospea hartzen ari da -Sutagareko bateria-, balio al du Aterperen izena zabaltzeko?**
- ❖ Beti ere badu sona gehiago.
- ◆ **Usoak, kazulean edo hegaka?**
- ❖ Bitan, lehendabiziko hegaka eta gero kazulin.
- ◆ **Bizitzeko, Irun edo Arantza?**
- ❖ Dudarik gabe, Arantza.
- ◆ **Albergean gimnasioa duzula aprobetxatzen al duzu?**
- ❖ Tartean aprobetxatzen dut, baina gimnasioa baino gehiago sauna. Horregatik mantentzen naiz gazte eta fuerte.
- ◆ **Udan, albergea haurrez betea dagoela, lorik egiten duzu?**
- ❖ Haurrak lokartzean, gu ere bai.
- ◆ **Zer nahiago duzu, ehiziko zakur on bat edo kotxe on bat?**
- ❖ Biak, urte guztian kotxea, urriroan ehizeko zakurra.
- ◆ **Egun guztia irriz egoteko sekretua?**
- ❖ Etorri igande eguerdi batean... beti ez naiz irriz egoten.
- ◆ **Oraindik betetzea lortu ez duzun ilusio bat?**
- ❖ Mundu guztia ezagutzea.



**Luzio ZUGARRAMURDI**  
ATERPE erretegi-aterpekoa  
Arantza

**Ostargi Optika**  
Bidosoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

**SAROBÉ**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**ttipi-ttapa**  
6.400 harpidedun  
22.000 irakurle

**PIKABEA** *pinturak*  
Molinero drogerian galdetu  
**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpozt 8 • © 630240 - 631495 • BERA


**Ileapaintzen ikasi esku onetan**

**ILEAPAINTEZE-AKADEMIA**

Etorkizun polit bat landu ezazu, ileapaintzen profesionala egin zaituz. **META** akademiak 24 hilabeteko ikastaroa egiten du -goiz-arratsalde- eta hobetzeko ikastaro bereziak. Ileapaintze-teknika guzietan egunean jarriko zaitu **META**k. Zerbaitegatik izanen da Nafarroa osoko profesionalak bere ikasleen zerbitzuak eskatzen dituztela, enplegu portzentai altu bat segurtatuz.

*Informa zaituz. Plaza mugatuak*

• Abejeras, 10. Tel: 259285 • Antso Azkarra, 26. Tel: 277314  
**IRUÑA**



## Ferien egutegia indartu nahi du Bertizko Turismo Partzuergoak

Batzar orokorra, bertzalde, ekainaren 16an burutuko du

Eskualdeko ferien egitaraua indartzeko nahia azaldu zuen Bertizko Turismo Partzuergoak, Administrazio Kontseiluko azken bileran.

Gaur egungo egitaraua, Elizondon hasten da, apirilko Udaberriko Feriarekin. Ekainean Altxata elkarteak Gasna eta artisau feria antolatzen du Etxalarren. Oitzen irailean burutzen da Gasna Feria eta Berako Lurraren Eguna urrian. Azaroan Arantza eta Igantzikoak ospatzen dira eta abenduan, Doneztebeko Santa Luzia feria.

Hauekin batera, Partzuergoak herri batetik bertzera mugitu daitezkeen feriak bultzatu nahi ditu. Uztailean, Urdazubi eta Zugarramurdi; abuztuan, Lesaka edo Sunbillan Erdi Aroko Feria eta urrian Elgorriagan, Onddoaren Kofradiak antolatutako besta. Feria batzuk Partzuergoak berak finantziatu lituzke eta gainerakoak Leader programaren bitartez.



### Funberako langileak Iruñean

Berako Fundiziotako 110 langile Nafarroako Gobernuako Industria Departamentuaren bulegoen aitzinean manifestazioa egin zuten maiatzaren 14an. Pankartan zera erraten zioten Gobernuari: «Akordioak bete egiten dira, ez aldatu ezta zanpatu ere». Badirudi protestaldiak eragina izan duela, beraien eskari gehientsuenak onartuz aurre-akordio bat sinatu eta laister komenioa ere sinatzea espero baita.

Argazkia: LEGARRA

### URTEKO BATZAR OROKORRA EKAINAREN 16AN EGINEN DU PARTZUERGOAK

Bertzalde, Bertizko Turismo Partzuergoak ekainaren 16an, arratsko 7,30etan burutuko du urteroko batzar orokorra, Partzuergoaren egoitzean, kide diren elkarte eta bazkide

guztiei zabaldua.

Gai-ordenean hainbat puntu egonen dira: aitzineko aktaren irakurketa eta onarpena; aurtengoz prestatu den aurrekontu eta egitasmoak onartzea, joan den

urteko kontu eta ekin-tzen balantzea egitea, etab...

Hondarreko Administrazio Kontseiluan, azkenik, gerentearen kontratua bertze urte batez luzatzea onartu zen.

## Erreka, sakan eta urtegi ttikietan obrak egiteko dirulaguntza deialdia

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuak, urtegi ttiki, erreka etra sakantzen zenbait lan egiteko dirulaguntza deialdia zabaldu du.

Dirulaguntza hauek, aurten erreka eta sakanten bideratze eta defentsa lanak eta urtegi ttikien moldatze eta hobetze lanak egin nahi dituzten udal erakundeetara zuzenduta daude. Subentzionatuko den kopurua, aurrekontuaren arabera izanen da:

- 40 milioi pezeta arteko aurrekontuek %70eko dirulaguntza jasoko dute.

- 40 eta 100 milioi arteko lanetan, lehen 40 milioiak %70eko laguntza eta gainerakoak, %80a.

- 100 milioitik goitiko lanek, lehen 40ak %70, hurrengo 60ak %80 eta gainerakoak, %90a.

Kasu guzietan, proiektu eta lanen zuzendaritza gastuak, lanen portzentai berean lagunduko dira, baina ez dira lur desjabetze gastuak ordainduko.

Eskaerak, urriaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira.

### EZPONDA HARRITSUETAN NEURRI ZUZENTZAILEAK

Eraberean, ezponda harritsueta egonkortze lanak eta neurri zuzentzaileak aurten egin nahi dituzten udal eta kontzejuek dirulaguntza eskatzen ahal dute. Lanak bere osotasunean ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak.

**Dia** **Autozerbitzua deskontua**

## Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

## TOP CLASS ENGLISH

### INGELES AKADEMIA

Alan Leiper  
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa  
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.  
ESKOLA LAGUNTZA  
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK  
Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESACA • Bittiria Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554  
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)  
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

# Sei egunez huelga egin dute Fundiziotako langileek

Nafarroako Gobernuak langileen eskaerak onartu ditu

ASIER GOGORZA

Funberan ari diren 140 langileek asanblean bilduta mugagabeko greba hasia erabaki zuten maiatzaren 9an, baina sei egun berandua, beraien eskakizunak betetzen dituen aurreakordioa sinatuta, bertan behera utzi zuten mobilizazioa. Laister komenioa ere sinatuko omen dute.

Langileen soldatak azken lau urteetan kongelatuak egondu dira, Enpresa Komiteak Nafarroako Gobernuarekin (1993tik fabrikaren jabea) sinatu zuen akordio baten ondorioz. Akordio horrek, halere, lau urte hoietan jaso ez zuten dirua 1997tik 2000 urtera bitartean portzentai jakin batean partituko zela agintzen zuen, eta portzentai hori da administrazioak bete ez duena, eta langileek grebaren bitartez salatu nahi izan dutena.

Hilaren 14an, langileek Industria Departamentuaren parean protestaldia burutu zuten.

## Mugaz Gain 97

Maiatzaren 26, 27 eta 28an, hirugarren urtez segidan Mugaz Gain antzerki emanaldiak izanen dira Kultur Etxean. Berako 4 ikastetxei zu-



hainbat koadrilako gazteek hartu dute parte, lotsak eta beldurrak alde batera utziz. Argazkian ageri direnak *Xarbotak* taldekoak dira, *euskaraokea* kantatzen, eta behegian, erreketan bildutako zabor guzia.

zendua dago, eta herriko zein kanpoko ikasleek hainbat antzerki obra antzeztu eta ikusteko aukera izanen dute. Berakoen artean, "*Sorgin ekologistak*" antzezlana prestatu dute Rikardo Barojakoek, "*Lau ipuin*" Labiagakoe, eta Jesusen Bihotzakoe, berriz, Hendaiako Antzerkilariekin elkarlanean "*Etiopia*" izeneko obra eskeinitu dute. Kanpotik ere tal-

de ugari etorriko da beren ikuskizunekin.

## Egin: 20 urte

Egunkariaren 20. urteurrena ospatuz erakusketa burutuko da ekainaren 22tik 24ra Kultur Etxean. Ortziralean, 8,30etan '*Euskal Herria eta prentsa 20 urteotan*' mahaingurua burutuko da Iamotenean. Gero afaria izanen da (txartelak 630052 telefonoan, 1.600 ptan).

## Afari batekin eman zitzaiezen akabera aurtengo Gazte Jokoei

Parte hartu duten 10 taldeek antzeztu zituzten parodiak izandu ziren aurtengo Gazte Jokoei azkeneko froga, baina biharamonean 90 partehartzaileek, antolatzaileek eta bertze zenbait gonbidatuek elkarrekin afaldu zuten Ricardo Baroja eskolako jangelan. Horren aintzinetik, ordea, Lamixine B.A.T. antzerki taldekoek ikuskizuna eskeini zuten Herriko Etxeko Plazan, Gazte Jokoei heldu den urterarte agur errateko. Hilabetez luzatu diren proba hauetan herriko

## flash

- ◆ **Harkaitz Cano** eta Ur Apalategi idazle gazteen tes-tuak irakurri eta antzeztuko dituzte maiatzaren 24an Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan hasita. Lamixine BAT taldekoak antolatuko dute ekitaldi berezi hau, eta bi idazle hoien liburuak salgai izanen dira bertan.
- ◆ **Agustin Portu** zinegotziak bere dimisioa aurkeztu zuen maiatzaren 8an eguzken udal-batzarrean. Lan kontuak direla eta utzi behar izan du Herriko Etxean zuen ardura.
- ◆ **Gazte Asanbladak** rock kontzertua antolatuko du maiatzaren 31rako. Koma, Vomit, Pllt eta Ezpal taldeek joko dute Altzateko suhiltzaileen parkean. Jaialdiari arratseko 10etan emanen zaio hasiera.

## Espainiako txapelkun suertatu dira Gure Txokoako lau neska

18 urtez behe-itiko kategorian, Espainiako Futbol Txapelketan irabazle suertatu dira Mirentxu Lanz Garzia, Miriam Erkizia, Edurne Telletxea beratarrak eta Idoia Etxepare lezakarra, Euskadiko selekzioari jokalaririk. Finalean andaluziarren aurka bat eta huts ira-

bazi zuten, eta erran behar da Edurne sartu zuela gola. Bertetik, espainiar selekzioak Miriam eta Edurne konbokatuko zituen Italiaren aurkako lagunarteko partidua jokatzeko, eta haraino joan ziren futboleko jokatzera, Torinoraino hain xuxen ere.

**BOTXO**  
**ostatua**

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 630 031 • BERA

GOZOTEGI - JAIONE



Alzate, 19 • 630786 • BERA

**LESACA**



**V. Euskal Jaiak**

Eguraldia lagun, 200 bat dantzari bildu ziren Tantarumairu dantza taldeak antolatutako Euskal Jaiaren 5. edizioan. Lesakako Tantarumairu eta Irain taldeekin batera, Lasarteko Erketz eta Irungo Txingudiko ikastolako dantzariak aritu ziren goizez. Arratsaldean, pailazoen emanaldia ikusgai izan zuten haurrek.



**Teleskola Irainen**

Maiatzaren 9an, Irain eskolako liburategitik zuzen-zuzenean lehen-dabiziko Teleskola saioa emititu zen. Programa hau esperientzia berria da Nafarroan eta eskolako irakasle eta ikasle guzietan parte hartu dute. Erran digutenez, haurrentzat hagitz esperientzia erakargarria izan da, «bideo muntaiak eginez, irudiaren munduaz kritikoki jabetuz eta ikusentzute komunikabideetan murgilduz». Iruñeko Planetarioan programaren aurkezpena egin dute larunbat honetan.

**Jubilatuak Urbasara**

Ortziral honetan, maiatzak 23, Urbasara joatekoak dira San Fermin jubilatuko elkarteak. Goizeko 7,30etan abiatuko dira eta Olazti eta Altsasutik igaro ondotik, hameketakoa Urbasako gainean eta bazkaria Iratxe hotelan eginen dute. Argazkia, Langileen Eguneko Ibilaldi Arautuan ateratakoa da.

Argazkia: Karmele



**Kirol eta kultur ekitaldietarako dirua banatu du Herriko Etxeak**

Bortz milioi terdi pezeta baino gehiago bideratuko dira

**AITOR AROZENA**

5.592.500 pezetako subentzioa banatuko du aurtren Herriko Etxeak kirol eta kultur elkarteak eta ekitaldiak diruz laguntzeko.

Musika eta kantua lantzen duten elkarteendako 1.335.000 pezeta zuzenduko dira: Abesbatzak 300.000, txistulariek 335.000, akordeolariek 150.000, musika bandak 400.000 eta trikitilariak 150.000 pezeta jasoko dituzte.

1.214.500 pezeta kultur ekitaldietarako emanen dira: Irain eskolak 402.500 pezeta (Margo eta muralen eguna, Haurren Eguna eta Dantzari Txiki);

Arranak 77.000 pezeta (10 pelikula emanaldi); Otxogorriak 444.500 pezeta (Txoko Txiki, Piper Gorri, Haurren Eguna eta pailazo jaialdia), Beti Gaztek 80.500 pezeta (Argazki lehiaketa eta aisialdirako eta gazteendako ekitaldiak) eta Tantarumairuk 210.000 pezeta (Euskal Jaiak) jasoko dituzte.

Kirol elkarte eta ekitaldietarako, azkenik, 3.043.000 pezeta bideratuko dira: Eguzki elkarteak 850.000 pezeta (Rally Sprint eta Agiñako igoera), San Ferminak 75.000 pezeta (gimnasia ikastaroa), Beti Gaztek 1.700.000 pezeta, Basurdek 50.000 pezeta (Elizalde

memoriala), Batzokiak 168.000 (Herri Lais-terketa) eta Arkupek 200.000 pezeta jasoko dituzte.

**Piszinako prezioak %10ean igoko dira**

Uda honetan igerilekuan sartzeko prezioak igo dira. Denboraldi osorako, 18 urtetik goitikoek 3.700 pezeta ordaindu beharko dute, 1.900 pezeta 11-18 urtekoek eta 1.300 pezeta 4-10 urtekoek. Eguneko prezioa 370, 190 eta 130 pezetakoa izanen da adin multzo horietan. 4 urte baino tikiagoak diren haurrek eta 65 urtetik goitikoek ez dute deus ordaindu beharrik izanen.

**flash**

**Jubenilen txirindularitza proba igandean**

Maiatzaren 25ean, 10'15etan hasita, bigarren urteko jubentilei zuzendutako txirindularitza proba burutuko da. 200 txirindularik parte hartuko dute eta 100 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Beti Gazte eta Urtxintxa elkarteek antolatutako proban. Sunbillara abiatzen direnean, herrian txirindularitza eskolako probak burutuko dira, hasberri, alebin eta infantil mailan.

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
 Tfnoa: 63 70 27 LESACA

**KATTU**  
 ostatu - jatetxea  
 Plater konbinatuak eta menuak  
 © 627573 • LESACA

**INAXIO JANARDENDA**  
  
 Igandetan 9etatik 13etara irekia  
**ASTERO** eskeintza bereziak  
 Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA

**IRU BIDE**  
 ERRETEGINA  
 Tfnoa: 637127  
**LESACA**

**ETXALAR**

# Ekainean, Gasna Feria eta Haurren Eguna ospatuko dira

Hilaren 8an Gasna Feria eta artisau lanen erakusketa

PELLO APEZETXEA

Aurten ere Gasna Feria izanen da Kultur Egunetako ekitaldi nagusia, izena gero eta haundiagoa hartzen ari den gasna lehiaketa. Baina bertze osagarri on batzuek borobilduko dute eguna, hala nola, artisauak bere lanean ikustea, baita urtean berrera herritarrek egingo eskulanak ere. Bezperatik pelikula bat ikusteko aukera izanen da.

**Etxebizitza eskasia**

Ez da kontu berria, noski, baina orain ere hor dago: jendeak etxebizitza nahi eta ezin eskuratu. 'Nola eskuratu du, bada, ez bada? Etxalarren etxe berria egin behar da bizilekuri nahi baduzu. Eta nork ditu horretarako behar diren milioiak?



**Axular baserria erre zen**

Axular baserria lehenbiziko solairutik goiti dena erre zen. Ezbeharrean, hala ere, laguntasan atsekabea arintzen du.

Argazkia: Pello

Milioiak izan eta ere, nork saldu nahi du lurrari? Bat eta bi baino gehiago dabilta prole-

ma eta kezka horrekin. Eta pentsatzen: Lesakarra joan? Berara? Horietan aukera gehiago iza-

ten baita'. Jende frankoren solasak dira hauek. Ez da hau aski prolema latza?

**Igerilekuetako lana**

Jon Santsiñena eta Irati Lujauk hartu dute aurtengo udarako igerilekuetako zerbitzua. Euren eskeintza bertzerik ez da sartu Herriko Etxean. Ea nolako uda egiten duen, igerilekuak denboraldi horretako gozabide izan daitezten, eguraldi onarekin gertatzen den bezala.

**Jon Sarasuaren solasaldia**

Nola egin bertso bat? gaiaren inguruan solasaldi polita eman zuen Jon Sarasua bertsolari ezagunak. Gazte jendea izan zuen entzule, eta aski konforme atera ziren bileratik, eurek agertu dutenez.

**Haurrak Lizarrara**

Aurtengo kanpaldi egunak Lizarran egingen dituzte Landagain Eskolako haurrek. Urbasa barrena joan, mendi eder hori zerbait bederen ikusi, eta Lizarra ezagutzeko aukera izanen dute. Maiatzaren 28, 29 eta 30ean. Eskolaurrekoek, bertalalde, Zarautzera joango dute, iaz bezala, ekainaren 3 eta 4an.

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**BEREAU**  
jaketxea • Hotela  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 62 75 09 - LESAKA

**GRUPO ZURICH**  
ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**Aranguren**  
Aroztegi mekanikoa

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

Tel.-Fax: (948) 63 72 58  
Tel.mug.: 908-77 51 85  
Otsango industrialdea  
31770 LESAKA

**HERRIKO OSTATUA**  
Jaketxea

**Ikasturtea otordu eder batekin bukatu nahi duzula?**

*Menu eta prezio bereziak irakaste, ikasle eta gurasoentzat Deitu lasai ederrenean!*

☎ 635290  
ETXALAR  
ASTEARTETAN ITXITA  
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA

**IGANTZI**

# Hagitz ongi hasi dute denboraldia Warsteiner-Biltokiko txirrindulariek

Josune Iguzkiagirrek hartu du piszinetako aurtengo lana

OSKAR TXOPERENA


**Igantzi-Goizueta**

Aurten bertze urteetan baino jende guttiago joanen zela uste bazen ere, 54 'mendizale' izan ziren Goizuetarako bidaian. Goizeko Setan abiatu eta 1a baino lehen ailegatu ziren bertara. Halere, etxera autobusez etorri orduko baziten gauerdia, presa haundirik gabe ibili zirenen seinale.

**Udal erabakiak**

Barañaingo lanpostu deialdiari buruz epaileak emandako sententzia errekurritzearen alde agertu da Igantziko udalbatza, UEMAK izandako iniziatiba onartu eta gero.

Gizarte Segurantzak Donezteben paratzekoa duen Harrera eta Informazio Zentruko langileak euskaldunak izan



**Biltokiko txirrindulariak bikain**

Estreina ona eman diete Warsteiner-Biltokiko txirrindulariek laguntzaile berriarekin hasi duten denboraldiari. Jeitsieretako Euskadiko Irekian, 23 urtetik behitukoetan bigarren doaie Santi Iturbide eta laugarren Xabi Tellexea. Asier Apezetxea arantzarra hirugarren dugu junior mailan Iban Iturbide

daitezen eskatu du, bertaldez.

**San Isidro Eguna**

Tradizio bihurtu da dagoeneko Arantza eta

Igantzioko nekazariak elkarrekin ospatzea San Isidro eguna. Aurten Arantzan egin da besta eta 35 lagun inguru jo-

an ziren Igantzitik Zahar Txokoan egindako bazkarria. Egun berean zuten Arkupekoek bidaia Volkswagenera eta 11

jubilatu joan ziren bertara.

**Eskola topaketak**

Lehengoan aipatzen genuen Etxalar, Arantza eta Igantziko eskolen arteko topaketa ekainaren 6ra gibelatu behar izan dute, Kukubiltxo taldeko partaideren batek istripua izan duela. Zahar Etxean egin gogo dute emanaldia.

**Piszinetako ardura**

Josune Iguzkiagirrek hartu du piszinetako ostatua eta aldagelak zaintzeko lana. Berea izan zen epe barrenean aurkeztu zen eskaintza bakarra eta, ondorioz, berri eman zioten lana.

**Bestetarako bilera**

Bestak antolatzeko lehendabiziko bilera maiatzaren 30ean, arratsko 10etan egingen da Biltokian.

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
© 63 11 06  
BERA  
EGUNERO MENUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**BERO ERROTA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • © 63 78 26  
LESAKA

**koxkonta**  
*Sagardotegia zabalik*  
Deitu erreserbak egiteko  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe herriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • © 637503 • LESAKA

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik hurbilago  
Bittiria, 67 - © 637264

**ARANTZA**

# Mozorroek antolatutako besta ospatu zen maiatzaren 3an

Patxi Larretxea eta Lorentxo Apezetxeak irabazi zuten aizkoran

ELIXABET ETA GARBIÑE

Maiatzaren 3an mozorroek antolatutako besta ospatu zen. Patxi Larretxea eta Lorentxo Apezetxea nagusitu ziren Donato Larretxea eta Jose Migel Errandonearen kontrako aizkol apostuan. Ondotik, Aterpen afaldu zuten 120 bat lagunek. Afal ondotik, frontoian Maixa eta Ixiarrek jo zuten, goizaldera arte besta luzatuz.



## Ternida Eguna igandean

Maiatzaren 25ean, Ternida Eguna ospatuko da. Ekaitza elkarteak bazkaria antolatu du, eguraldi ona eginez gero, Senberroko Bordan eta txarra eginez gero, elkartearen bertan. Menua: entsalada, ardi gisadoa, gazta, kafea, kopa eta puroa. Bazkalondoren, herriko trikitilariak eta akordeolariak alaituko dute giroa. Bazkarira joan nahi duenak, Imanol edo Juanari erran beharko dio, aldeaz aurretik 1.000 pezeta ordainduz.

Artxibokoak

## Informatika

Maiatzaren 18an hasita eta bortz hilabetez informatika ikastaroa emanen da. Astearen behin emanen dira klaseak, larunbatetan bi orduz. Jende aunitz apuntatuta dagoenez, hiru ordutegi daude. 10,30etatik 12,30etara; 12,30etatik 2,30etara eta 4etatik 6etara. Ikastaroa buka-

terakoan, Windows 95, Word eta Acces tituluak jasoko dituzte.

**Bataio eta jaunartzeak**  
Maiatzaren 11n bi haur bataiatu zituzten

eta ekainaren lehen hiru haurrek lehen jaunartzea egingen dute.

## Ander Agesta Munduko azpitxapeldun trinketean

Maiatzaren 4tik 11ra Ander Agesta herriko pilotari gazteak Munduko trinkete txapelketan parte hartu du. Astebetez Arnedon jokatu zuen Mexiko, Frantzia, Cuba eta Argentinaren kontra. Iruñeko Haritz Zabalza zuen lagun. Cubari finalerdian 40-26 irabazi ondotik, Frantziaren kontra finala jokatu zuten. Maiatzaren 11ko finalean 40-11 galdu zuten. Baina garbi dago ez dela emaitza txarra Munduko bigarrena suertatzea. Zorionak!

## Eskola kanpaldiak eta ikas-bidaiak

Maiatzaren 28tik 30era, Lehen Hezkuntzako haurrak Lizarrara joanen dira kanpaldian. Ekainaren 3 eta 4ean Haur Hezkuntzakoak Zarautzera eta DBHkoak, berriro, ekainaren 16tik 23ra ikasbidaia izanen dute Bartzelonara.



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaleak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuztandako' Maizoa  
Zahar antzinakoa Txapela

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



**ALBERGIA  
JATETXEA**

© 634179  
**ARANTZA**

**FOTO  
GOIKO**

Altzate 26  
Tel.-Fax: 630515  
**BERA**



© 631076 • BERA



Sukalde mobileen  
fabrika

**Zuzeneko salmenta**

Lesakako sarreran, Beko-Erota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

*Azalea*  
*Loredenda*



- Kotxe eta elizaren dekorazioa
- Andregai-erramuak
- Gonbidatuendako oparituak

**Loregintzan diplomaturia**

Altzate 26 • © 63 11 21 • BERA

# Mendaur Egunean bazkaria antolatu du Ulibeltzak elkarteak

Igande honetan ospatuko da

JOSUNE ETA ISABEL

Igande honetan, maiatzak 25, Mendaur Eguna ospatzen dela eta

bazkaria antolatu du Ulibeltzak elkarteak. Goizean, herriko jendea, bakoitza bere koardilarekin joaten da

Mendaurra eta batzuk mendian bertan bazkaltzen dute. Ulibeltzak elkarteko bazkariak joan den urtean izandako

arrakasta ikusita, aurten ere berriz egitea pentsatu dute. Bazkalondoa alaitzeko musika ere izanen da.



## Ameriketean lanean egondakoen bazkaria

1987an hasi ziren egun hau ospatzen, maiatzaren 1ean, eta dagoeneko hamargarren urteurrena ospatu dute. Lehenengo urteetan 70 bat sunbildar elkartzen ziren, emazte eta guzti. Urteak pasa ahala, gero eta jende guttiago bildu dira eta orain 23 lagun elkartu ohi dira. Itxegik, hiru egunez lurra berotu ondotik, lur azpian ogia egin zuen. Bazkariaren ondotik, herriko ostatueta ibili ziren poteoan eta arratsean, bazkarian sobratutakoarekin afaldu zuten. Egundorobila.

Argazkia: Zaldua

## flash

### Donezteboko musika eskola

1997-98 ikasturterako Donezteboko musika eskolan izena emateko epea ekainaren 6an bukatuko da. Donezteboko udaletxean edo musika eskolan apuntatu behar da.

### Moldaketak gimnasioan eta Bear-zana frontoian

520.608 pezetako aurrekontua izanen dute lan hauek eta Donezteboko udalak dirulaguntza eskatu dio Gizarte Ongizate sailari. Eraberean, Donezteboko San Miguel eskolako gimnasioaren aldagelak ere moldatu behar dituzte, 2.182.134 pezetako aurrekontua izanen duten lanak eginez. Dirulaguntza Hezkuntza eta Kultura sailari eskatu zaio, kasu honetan. Bi proiektuak Txokarro-Urmeneta arkitektuek egin dituzte.



**AMEZTIA**  
Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



**ALDABE TAXIA**

**DONEZTEBE**  
☎ 450687



☛ **astez:**  
goizeko 8etatik aitzinera

☛ **asteondarretan:**  
11etatik aitzinera

**gosariak • bokatak • pintxoak**

DONEZTEBE (Osasun Zentroaren parean) ☎ 451766



**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133  
451 541  
Faxa: 450 334  
**DONEZTEBE**



**DONEZTEBE**

# Askin inguruan baimenik gabe egindako lanak salatuak izan dira

Mendi pista, lur mugimenduak eta eraikin bat egin dira bertan

TXEMA ALDABE

Askin inguruan mendi pista zabaltzeko eskaera luzatu du berriro Doneztebeko Herriko Etxeak, aldeko 7 boturekin, Tomas Ezkurra kontrako botuarekin eta Zabalaren abstentzioarekin. Pista baimenik gabe egin zen eta, gero, Mendi Zuzendaritzan baimen eskaera egin bazen ere, salaketa bat aurkeztu zen Naturaren Kontserbaziorako Zerbitzuan.

Tomas Ezkurra zinegotziak erran zuenez, «pista zabaltzea ez zait zuzenaruditzen. Inguru horretan udalak plantazioak eginak ditu eta zenbait zuhaitz galdu dira. Gainera, pistaren helburu bakarra ehiztarien bordara bide hobe izatea da».

Alkateak bere alde-tik, «pistak materiala ateratzeko balioko du eta suebaki funtzioa ere beteko du».

Tomas Ezkurra Askin mendian egiten ari diren lur mugimenduetaz eta, bere ustez,



## Nafarroako txapelketan bortz domina eskuratu dituzte Doneztebeko judoek

Doneztebeko gimnasiotik aurkeztutako hamabi judoketatik bortzek Mutilvan jokaturako Nafarroako txapelketaren finalerako sailkatu ziren eta hauek guztiek domina etxeratu zuten: 11 urtez behe-itiko mailan, 30 kilotik beheiti, urrezko domina lortu zuen Niko Mindegia eta 34 kilotik beheiti, brontzeko domina leporatu zuen Jon Etxekoloneak. Adin eta pisu berean, nesken artean onena izan zen Cristina Mindegia eta urrezko domina etxeratu zuen, Itziar Jorajuriak, 38 kilotik beheitiko pisuan egin zuen bezalaxe. Azkenik, 13 urtetik eta 38 kilotik behitiko mailan, zilarrezko domina ekarri zuen Javier Bertizek. Pozik ageri zen Oskar Mindegia entrenatzailea, «batez ere haurrengatik, arras kirolariak direlako» eta urteotan gimnasiotik 500 bat ikasle pasatu direla adierazi zuen. Txomin Mindegia

herri lurretan ilegalki egin den eraikinaren inguruan, Udalak zer egin

behar duen galdetu zuen. Alkateak obra baimena sartzea aiantzi

zuela, baina Ingurugiro saileko txostena bazela erantzun zuen.

**flash**

❖ **Oihan enkantea**  
Aldapa-Haundi inguruan 48 haritz amerikar probexetako oihan enkanterako deialdia luzatu du udalak. Guzira 70 m<sup>3</sup> zur era 10 m<sup>3</sup> adarki eginen dira eta 1.090.100 pezetan baloratua dago. Proposamenak maiatzaren 28ko ordubata baino lehen aurkeztu beharko dira.

❖ **Erreken garbiketa**  
Galbaraialde, Baztan eta Bidasoa errekek garbitu eta dragatzeko dirulaguntza eskatu dio udalak Naturaren Kontserbazio Zerbitzuari.

❖ **INEM-Udalak lankidetzatza**  
Zabortegian eta igerilekuan zenbait lan tiki eginen dira eta Intzakardi ingurua garbituko da INEM eta udalaren arteko lankidetzatza komenioaren bitartez. Erabelean, Azkarreta etxearen behekaldean eta San Migeleko ermitan moldatze lanak eginen dira.

❖ **Ordezko Bake Epaila**  
Juan Ignacio Apeztegia izanen da, Jose Manuel Sarratea zenaren ordez.



**ASEGURUA**

Parrokia 21  
Tel.-Fax: 450266  
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak



### SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



### BELARRA

OSTATUA - JATETXEA  
Amezitia karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 45 03 06

### ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari  
eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

**MALERREKA**

**Eratsungo frontoi estalia eraikitzeko lehiaketa**

Eratsungo Herriko Etxeak, frontoi estalia eraikitzeko lanak kontratatu eta burutzeko xedarekin lehiaketa zabaldu du. Hasierako prezioa, gehienez ere 46.975.135 pezetakoa izanen da (BEZ barne) eta behin lanak adjudikatzerakoan, zazpi hilabeteko epea izanen da hauek akitzeko. Lehiaketan parte hartzen dutenek, 900.000 pezetako behin-behineko fidantza paratu beharko dute. Proposamenak maiatzaren 30eko eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu beharko dira Eratsungo Herriko Etxeko bulegoan.

**Iturendarrak Herri Urratsen**

Orain hamahiru urte hasi zenetik, urtero urtero Senperera joan izan dira Iturengo joaldunak eta aurtengoa ere ez zuten hutsik egin eta jorearen burrunba sumatu ahal izan zen zirkuitoan barna. Aski ezagunak dira, baina bat baino gehiago harritu zuten aurtengoa ere. Bertzalde, Senpereko lakuan iturendarrek antolatzen duten bazkarian, bestera 30 herritarrek parte hartu zuten.



**Euskararen Astea Donezteben**

Jendearen partehartzearen aldetik arras arrakastatsua izan zen Euskararen Astea. Oskorri & The Pub ibiltaria kontzertuan, adibidez, 700 pertsona sartu ziren Bordatxon. Halere, *Ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi* erakusketa kaxkar xamarra izan zen, ikusleen ustez.

Argazkia: TXEMA

**flash**

**Bertso afaria Urrotzen**

Maiatzaren 10ean bertso-afaria ospatu zuten Urrotzen, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin. Ondoren, kordion soinuak izan ziren Joxe Angelekin.

**Alboka taldea Iturengo plazan**

izanen da maiatzaren 31n, gaueko 11etan. Txomin Artola da talde honetako partaideetako bat. Ekitaldia Nafarroako Gobernuak antolatu du, Udaberriko Jira-biraren barnean.

**Zubietako errota udalaren esku egonen da 15 urtez**

15 milioiko inbertsioa egin eta artoa jotzen segituko da

**AINHOA MUTUBERRIA**

Apirilaren 20an egin-dako bileran, erroren jabe den elkarteak, erroren erabilera 15 urterako Herriko Etxeari uztea erabaki zuen. Orain, ekomuseoa egiteko eskriturak idaztea esperatzen ari dira, gero proiektua eta obrak egiteko. Onartutako baldintzen artean, errota ar-

toa jotzen segitu eta udalak 15 milioiko inbertsioa egin beharko du moldaketak egiteko. Gainera, Errege eguneko bilera mantenduko da eta udalak, informazioa emanen dio elkarteari. 15 urteren buruan elkarteari itzuliko zaio errota, kargurik gabe.

**Ezkontza**

Aspaldiko partez,

maiatzaren 17an ezkontza ospatu zen Zubietako elizan. Ospakizun hauek gutxitan izaten dira. Zeinen polita den hainbeste jende dotore jantzia ikustea eta, batez ere, ezkongaien jantziak ikustea.

**Aingeru eta loreen hilabetea**

Maiatza loreen hilabetea da eta aingeruena

ere bai, Zubietan behinipein. Horregatik hilabete honetako igande guzietan herriko sei neskek soineko txuria jantzi eta lore erramu bat eskuetan hartuta, ohitura zahar honi eusten diote, gustora aski gainera. Halere, gero eta ume gutxiago izanik, egun batean eskas izanen dira. Oraingo ez dago arazorik.

**FUNERARIA ZERBITZUAK  
DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**IRUNEN TRIKITIXA DENDA**

*Marka eta modelo guztiak*

**ZURE SOINUA  
EROSI AURRETIK  
INFORMATU ZAITEZ**

San Pedro, 7  
Tel.: (943) 63 19 66



**MALERREKA**

# Trinitate Eguna igande honetan ospatuko da

Arratsaldean dantzaldia izanen da Iturengo plazan

IBAN ISASI

Aurtengoan, egutegiak hala nahita Trinitate Eguna maiatzaren 25ean suertatu da. Inguuruko herri guzietatik eta, batez ere, Iturendik Mendaur gainean da goen baselizara jende

aunitz joanen da. Mezak, urtero bezala, goizeko 9etan eta 10etan izanen dira. Eguraldiak laguntzen badu, urtegi burutuko da Iturengo gazteek antolatzen duten herri bazkaria. Halere, Mendaurrera hurbiltzen diren guziek

beraien otordua egiteko xokoren bat topatuko dute, duikabe.

Goizeko erromeri giroari segida emanez, arratsaldean bestak Iturenen segituko du, izan ere, herriko plazan *Gaubela* taldeak joko du berandu arte.



Hainbat lagun espero dira igande honetan Mendaurko kaxkoan. Meza, musika eta erromeri giroa nagusituko da bertan Artxiboa

## Doneztebeko Maite Gonzalez irakaslearen hilketa herri epaimahaia ikusitako du

Joan den urteko ekainean Donezteben eskopeta tiroz hil zuten Maite Gonzalez irakaslearen hilketa 9 kidek osatutako herri epaimahai batek epaituko du. Hauek, Marcelino Larretxea Lizardi, 34 urteko aranzarraren erantzukizun kriminala zehaztuko beharko dute.

Epaimahaikide nahiko biltzen badira, epaiketa ekainaren 23an, goizeko 9.15etan hasiko da. Fiskalak hamar urteko gartzela zigorra

eskatuko du eta Maite zenaren senarrak burutzen duen akusazio partikularrak hamalau urte. Epaietarako zazpi lekuko deituko dira, defentsa nahiz akusazioaren aldetik eta bortz txosten aurkeztuko dira. Beraz, epaiketa bizpahiru egunez luzatzea espero da.

Gogoratuko duzue, Maite Gonzalez musika irakaslea Irungo ospitalean hil zen Elgorriagako zubian jasotako bi tiroen ondorioz.

**LEITZALDEA**

## Epaimahaikide euskaldunik ez zegoela eta, zenbait langile kontratatzeke atzerapena

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako Udal Administrazio Laguntzailea kontratatzeke frogak ekainaren 9an egingen dira. Hasieran jarritako epai-mahaikideek zenbait administratuziko teknikoak ziren eta, euskaldunik ez zegoenez eta epai-mahai berria

izendatu behar izan denez, asko atzeratu da frogen hasiera.

Arazo bera izan dute Leitzako Goizueta-Areso-Aranoko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko Gizarte Langile kontratatzeke epaimahaiarekin. Froga hauek ekainaren 19an egingen dira.




# ADOS

## INMOBILIARIA AGENTZIA

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2.ezk • DONEZTEBE

 <p><b>DONEZTEBE.</b> - Aparanen, 75 m<sup>2</sup>ko pabilioi industriala salgai.</p>	 <p><b>-MUGAIRI.</b> - Pisu hagit eguzkitsua salgai. 8.500.000 pezeta.</p>	 <p><b>NARBARTE.</b> - Etxe bakarrean pisua salgai, bere baratzearekin. 10.000.000 pta. negoziagarriak.</p>
 <p><b>ELGORRIAGA.</b> - Pisua, garaje eta ganbarearekin salgai. 13.500.000 pezeta negoziagarriak</p>	 <p><b>LEGASA.</b> - Etxea baratzearekin salgai. 11.000.000 pta negoziagarriak.</p>	 <p><b>BERA.</b> - 200 m<sup>2</sup>ko baju zatigarria salgai.</p>
 <p><b>NARBARTE.</b> - Pisua haritzeko sukalde eta berogailuarekin salgai. 7.700.000 pta.</p>	 <p><b>MUGAIRI.</b> - Nabe-pabilioiak salgai. 43.000 pztatik gora m<sup>2</sup>.</p>	 <p><b>ELGORRIAGA.</b> - Etxe adosatua salgai. 14.000.000 pta. AUKERA.</p>
 <p><b>ELIZONDO.</b> - Saskaitz Plazako pisua salgai. 9.000.000 pezeta.</p>	 <p><b>BERA.</b> - 4 logelako pisua salgai. Kanpoaldera begira. 15.000.000 pta. Igogailua eta trasteroa.</p>	 <p><b>IGANTZI.</b> - Azken etxe adosatua salgai, bere lur eremuarekin. 18.500.000 pezeta.</p>

**Bordak, baserriak, pisuak edo lur eremuak erosi nahi dira**

**GOIZUETA**

# Bakerotarrak eta Etxeberria omenduko dira larunbatean

Udalak eta Umore Ona elkarteak antolatuta

ESTEBAN AROZENA

Larunbat honetan, maiatzak 24, herriko goi mailako futbolariak omenduko dira udalak eta Umore Ona elkarteak elkarlanean antolatutako ekitaldi batean.

Bost Bakerotar, Joxe Mari, Xanti, Itziar, Jon eta Ainhoa eta Joxemmanuel Etxeberria dira herriarren omenaldi hau jasoko dutenak. Horretarako prestatu den egitarauak dioenez, arratsaldeko 7etan futbito partidu bat jokatu da Umore Ona eta Lesako Beti Gazteren arte-

an. Ohorezko sakea sei omenduek egingo dute eta herriko dantzariak ere bertan izanen dira. Ondoren, eskoletako jangelan bilduko dira sei protagonistak herriarrek, nolabaiteko hitzaldi edo solasalditxo bat egin asmoz.

Pertsonaia ospetsu hauei eskainitako egun honen ekintza nagusia, frontoian burutuko den afari herrikoa izanenda. Han emanen zaizkie antolatzaileek prestatutako opariak eta bertsolari eta trikitalarien esku egonen da mahai-ingurua berotzearen



## Mendi-bizikleta ibilaldiaren seigarren edizioa igandean

Umore Ona elkarteak antolatzen duen mountain-bike ibilaldiak igandean, maiatzak 25, beteko du seigarren edizioa. Zirkuitoa ohikoa da, hau da, herriko plazatik atera eta Kuxiñeneko Bordan barrena Enekoelorrrietara igo (690 metroko altuera). Hortik dena goitik beheiti, 23 kilometroko ibilbidea osatutakoan herriratu arte.

Irteera goizeko 10etan emango da, baina aurretik izena eman beharko dute partaide guztiek, 14 urtetik beheitikoak 100 pezeta eta helduek 500 pezeta ordainuz. Inskripzio honek, proba ondoren egingo den bizikleta baten zozketan parte hartzeko aukeraz gain, pintxo eta salda beroarekin haurrentzako egiteko eskubidea ematen du. Esan beharrik ez da, noski, kasikoa eramatea beharrezkoa izanen dela.

ardura.

Jakina den bezala, larunbatean omentzen diren hauen biografiak ha-

gitz aberatsak dira. Esate baterako, egun Mexikoko Veracruzen jokatzeko duen Joxe Mari Bake-

rok Espainiako sei liga irabazteaz gain, Europako Kopa ere eskuratu zuen Bartzelonarekin.

**ARESO**

# Eskolatik Segurara eta Zerainera

Museoa eta zooa bisitatu zituzten

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Apirilaren 29 eta 30ean eskolak bi eguneko irteera antolatu zuten Segura eta bere inguruak ezagutzeko. Seguratik bi kilometro dagoen Zerain bisitatu zuten. Diaporama bat ikusi ondoren, Kultur Etxean dagoen Museo Etnografikoa

ikusitako zuten. Han kartzelaren aipamena eta bertan erabiltzen zituzten hainbat tresna ikusi zituzten. Seguran berri, baserri batean dagoen zooa bisitatu zuten. 90 espeziatako 250 animaliz osatua dago. Segura Irratia ere bisitatu zuten. Asteazkenean, azkenik, Ordiziara abiatu ziren, han ospa-



Eskolako ikasleek egun ederrak pasatu zituzten Segura eta Zerainean

tzen den merkatua ikusteko asmoarekin. Ikasle askok, etxera zerbait ekarri behar eta, erosketak egin zituzten. Irteeraren balorazioa

guztiz baikorra izan da, bai irakasleen aldetik baita ikasleek izandako erantzukizunagatik ere, antolaketa eta portaera ona erakutsi delako.

❖ **Santa Kruz** bazelizarako erronomia egin zen maiatzaren 11n. Herri Urrats eta pilotatxapelketa zirela eta, jende gutxi joan zen.

# XIX. Kultur Astean sartuak, ekitaldiz betetako asteburua

Igandean eskulanen erakusketa burutuko da

JOSEBA AZPIROZ

Kultur Astean buru-belarri sartuak gaude eta zenbait ekitaldi burutu badira ere, hemendik aurrera izanen da zer ospaturik. Asteazkenean, *Esku-pilota gaur egun* mahaingurua burutu zen zenbait pilotarirekin.

Ostegunean, maiatzak 22, Objezio fiskalari buruz arituko dira intsumisoak. Ostiral goizean bertso paper lehiaketa zinean. 3etan *Hortzisaurioak* kale animazioa, 4etan txokolata eta gaueko 10etan Dixiekleta jazz taldea zinean. Larunbat eguerdian, umeentzako aparraz plaza, 8etan Asketa abesbatza eta gauez Jarauta 69 txaranga herrietik. Igandean, azkenik, 11etan XVII. eskulangintza erakusketa zabalduko da. 1etan Estitxu Arozena eta Maddalen Lujanbio bertsolariak arituko dira plaza eta 2,30etan herri bazkaria, bertsolari eta Imuntzo eta Beloki trikitilariekin. Azken hauek beste saio bat eskainiko dute plazan 7etan.



### Jubilatuena antzerkia

Sekulako arrakasta izan zuen Jubilatu taldeak (Gloria Irurtia, Joxe Etxeberria, Itziar Sagastibelza, Isabel Huarte, Ramoni Leizaola, Genoveva Otxandorena, Joaquina Alduntzin, Eusebio Maritorea eta Maritxu Apezetxea) Joxe Mari Salaberriaren zuzendaritzapean eskaini zuen antzeslanak. Argazkiak: JOSEBA

❖ **Mendi ibilaldia** burutuko da igandean, hilak 25, Abialdiaren barranean. Bi talde osatuko dira, bat Eguzkiko Muñoa eta Kornietara joanen da eta bestea Guratz eta Kornietara. 7,30etan abiatuko dira plazatik eta eguerdira itzuliko dira. Gero, erakusketa eta herri bazkarian parte hartu ahal izanen da.



### Oskar Etxera herri ekimena

Maiatzaren 3an egin zen Oskar Astibiaren askatasunaren aldeko herri ekimenaren aurkezpena.

## flash

### ❖ Nafarroako 36. Txirrindulari Itzulia

ekainaren 4an, arratsaldeko 4,30ak aldera igaroko da Leitza-tik.

### ❖ Hautzaindegiko

matrikula 2.000 pezetan igotzea erabaki du udalak. Horrela, datorren ikasturtean hilero 6.000 pezeta ordaindu behar dira. Bestalde, udal lokalen erabilpenarako ordenantzari behin-behineko onespina eman zioten. Aldaketarik gabe onartzen bada, hemendik aurrera mila pezeta orduko ordaindu beharko da lokalen erabileragatik (orain arte zinemaren alokairuarengatik soilik ordainitzen zen). Ekitaldi sozio-kulturalen antolatzaileek ez dute ordaindu beharko.

### ❖ Aparkatzeko debekua

Kamio bazterrean aparkatutako ibilgailuek beraien *muelle* edo kaietara kamioiak sartzeko traba egiten dietela eta, Sarriopapelek aparkatzea debekatzea eskatu zuen. Horren ondorioz, *Eurocote* parean, 35 metrotan, ezin izanen da aparkatu astez, goizeko 7etatik arratsaldeko 9ak arte.

### ❖ Igerilekuen zerbitzua

250.000 pezetan esleituko da aurten igerilekuen erabilera. Aurreko udan zerbitzu hori inork hartu nahi izan ez zenez, aurten 100.000 pezeta gutxiago eskatuko dira.

**muñeca de Trapo**

**IRUN**  
Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55

Basa Kabi baserriari bihurtu da.  
Baserriko menua.....2.200 pta.  
Sagardotegiko menua...2.950 pta/per.  
Banabar jatea .....1.900 pta.

**Basa Kabi** Tel. 510125 • Faxa: 610965  
LEITZAko gaina

**OPS Ingenieros S.L.**

- **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
- **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

**Elizatz**

**ERLOJUTEGI BITXITEGIA**

*Nafarrentzat prezio bereziak*

Landetxe Eparantza  
© 943.492698  
**OIARTZUN**


**BAZTAN**

# Doike euskara taldeak bere lehen urtebetetzea ospatu du

Berrehun bazkide izatera ailegatzea da taldearen asmoa

JOSEBA IGARABIDE

Doike euskara taldeak bere lehen urteurrena ospatu du larunbat honetan, maiatzaren 17an. Hamaiketakoa izan zuten Arizkunean, bertsolari eta guzti. Ez zen ordea, dena besta eta ospakizuna izan, urteko batzar nagusia ere egun horretan burutu baitzuten eta aurtun egindakoaren balantzea eta etorkizuneko egitasmoen aurkezpena egin zuten. Gaur egun, ehun bazkide inguru ditu Doike euskara taldeak, eta beraien asmoa 200era ailegatzea da. Taldeak burututako jardueren gaineko iritzia emateko inkesta ere eginen dute.



Aitzineko lerroan 1. sariak: Estebe, Mikel, Mattane eta David. 2. lerroan, 2. sariak: Iban, Miren, Ander eta Ander. 3. lerroan, 3. sariak: Miren, Gorka, Amagoia eta Jagoba.

## Eskolarteko bertsopaper lehiaketan Baztan ikastola nagusi

Baztan ikastolako umeak, sari guztiak lortu dituzte zonaldean, Nafarroako Eskolarteko XI. bertsopaper lehiaketaren barnean. **3. mailan**, lehen saria Maitane Etxeberria, 2. Ander Loiarte eta 3. Amagoia Cabodevila. **4. mailan**, David Otxandorena, Ander Etxenike eta Jagoba Ramos. **5. mailan**, Mikel Ariztia, Miren Garmendia eta Gorka Urtasun. **6. mailan**, Estebe Apezetxea, Iban Dufurrena eta Miren Mindegia.

**flash**

- ◆ **Herrilurren truketzea**  
Balleko Etxeak Arizkunen inguruko herrilurretan zuen 2.459 m<sup>2</sup>ko lur eremua, M<sup>a</sup> Angeles Irigoienek 3.197 metroren gainetik aldatuko du. Eraberean, Balleko Etxearenak ziren 14.955 m<sup>2</sup>, M<sup>a</sup> Jose Zenezek Albando inguruan zuen bertze horrenbertzeko lur eremuarekin trukatu du.
- ◆ **Xorroxin inkesta**  
Xorroxin irratia luza dutako inkestaren ondotik, 25.000 pezetako zozketan sariak suertatu direnak 4.745 eta 2.525 zenbakiak izan dira. Saria eskuratzeko 581226 telefonora deitu behar da eta hila beteko epea izanen da saria eskuratzeko.
- ◆ **Amaiurko**  
Erdiko-bidea zola berri aitinetik bide horrek herrira duen irteera moldatzea eskatu dio Bernardo Amiano alkateak Balleko Etxeari. Gaur egun ermitak metro erdi kentzen dio galtzadari.
- ◆ **Lekarozko**  
aterpearen konponketa lanak Pavimentos de Navarra enpresak eginen ditu 83 milioi pezetaren truke. Ehun pertsonendako lekua egokituko dute.



**Baztandarren Biltzarrik ez aurtun**  
33 urte segidan egin ondotik, aurtengoan ez da Baztandarren Biltzarria ospatuko. Antolatzaileek adierazi dutenez, «egunak bere edukia galtzen ari zuen eta besta huts batean bihurtzen ari zen»

## Plan berriaren kontra azaldu da Elizondoko COFES-Haizea

Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bitartez maiatzaren 20an onartu du Emakumeendako Osasun Laguntza Plana. Plan honek emakume bakoitzari nahi duen ginekologoa aukeratzeko eskubidea eskeintzea du helburu, haurdunaldia eta erditzearen segimendu zehatza egin diezaion. Baina Elizondoko COFES-Haizeako

langileen ustez, beraien zentroa Burlatakoaren menpe geldituko litzaiteke, orain duen autonomia galduz. Gainera, plan berri honekin orain arte COFES zentruetan burutu diren informazio eta hezitze lanak bihurtituko direla segurtatzen dute. Firma bilketa eta prentsa komunikatuaren bidez beraien ezadostasuna erakutsiko dute langileek.

ARROPA DENDA

**FANTXIKE**  
MERCERIA  
JANME URUTIA, 24  
T.FNO. 580312  
ELIZONDO

**CERVANTES**  
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**Pierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**DANBOBIENA**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

**BAZTAN**

# Almandozko bestak maiatzaren 28tik ekainaren 1era ospatuko dira

Corpus Cristi egunean herri afaria izanen da pilotalekuan

**Asteazkena 28**

1etan suziriak beste ha-siera emateko. 9etan kalejira Exkerne akordeola-riarekin. 10etan herri afaria Leku-eder elkartearen. 12etan dantzaldia Exkernerekin.

**Ortzegune 29**

**Corpus Cristi Eguna**

7etan gosaria gautxoriendako. 8etan aurora. 12etan Meza Nagusia. 1etan luntxa herriko pilotalekuan. 6etan pilota partiduak herriko mutikoen artean: Xabier eta Asier, Garikoitz eta Iñakiren kontra. 8etan kalejira GAUERDI txarangarekin. 9,30etan herri afaria pilotalekuan. 11etan dantza txapelketa. 12etan dantzaldia GAUERDI txarangarekin.

**Ortzileria 30**

7etan gosaria gautxoriendako. 11etan mus txapelketa herriko ostatueta. 2,30etan zikiro-jatea pilotalekuan Exkernerekin. Arratsalde eta gauetz dantzaldia EQUUS taldearekin.

**Larunbata 31**


11etan haur jokoak. 4,30etan plater tiraketa he-



rrikoentzat. 5etan txokolatada haurrendako Leku-eder elkartearen. Arratsalde eta gauetz dantzaldia JATOR taldearekin.

**Ekainak 1, igandea**

6etan herri kirol ikuskina ZURGAI taldearen eskutik: Kañameres anaiak trontzan eta aizkoran eta Joxe Bikondoa altuera mozketan. Arratsalde eta gauetz dantzaldia BACANAL taldearekin. Azkenik, 'Pobre de mi' oraindik zutik daudenentzat.



Aurtengoan ere honelako umorearekin segitzea ez zen guti izanen. Bestetan giroa norberak jartzen baitu!

Argazkiak: Ione Mitxeok utziak

**flash**

❖ **Saneamendu lanen**

bigarren fasearen ondorioz Gartzain eta Aintzanoko zeharbi-deak hondatuak gelditu dira. Balleko Etxeak, zola lehenbailehen moldatzea eskatu dio Nafarroako Gobernuako Bide Zerbitzuari.

❖ **San Isidro Azpilkuetan**

Elkartearen eguna ere ospatu zuten nekazariak. Lehenik meza eta gero bazkaria izan zuten, elkartearen.

❖ **Emakume taldea**

osatzeko asmoa dago Baztanen. Horren inguruan solasteko bilera egin zen Arizkunenean maiatzaren 10ean.

❖ **Herri Urrats**

Jende aunitz gan zen Baztandik Senpererat: Amaiurtik txirindulaz, Baztango mendigoizaleak oinez eta Baztango Gazte Asanbladak autobusa antolatu zuen eta bi bete zituen.

❖ **Oronozen**

errepide bazterrean harrizko paretak altxatu behar dituzte auzolanean.

**BODEGAS ERRASTI, S.L.**

*Bodegas Gailur*

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK  
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea  
**TXOPORRO Ardoak**

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**UDAKO ARROPAK  
NOBEDADEAK**

**BIKINI eta BAINUJANTZIAK**

**LARRALDEA**



**SAGARDOTEGIA**

Asteartetik ortzileria Betatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

**SARA**

# Ehundaka Goldwing motok zeharkatu zuten herria Donibanerako bidean

Herri Urrats kari milaka euskaltzale bildu dira Senpere eta Saran

JACQUELINE ETA MIXEL

Maiatzaren 8 eta 11ren artean Goldwing moto ikusgarrien elkarretaratzea zen Donibane Lohitzunen. Erran gabe doa Euskal Herria zeharkatu dutela eta horrela zaizkigu zazpirehun bat moto Saratik pasatu. Ez balin bazen jakina ere, laster hauen burrunbek jendea hur-bilarazi zuten plaza inguruetarat eta ordu erdi baten ikusgarria eskaini ziguten.

## Euskara ohoretan... Herri Urrats

Beti bezala, jendea milaka ibili zen Senperereko aintziraren inguruan Herri Urrats kari, eta zenbakietan burua hautsian aritu gabe, antolatzaile batek hauxe zioen: «Joan den urtean baino gehiago eta hurrengo urtean baino



**Elez eta legez, euskararen alde Senperen oinez**

Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

guttiago!». Maiteminduetaz erraiten den bezala, beraz.

Aurtengo lema «Euskara, elez eta legez» zen, bainan hunek ez du maiatzaren bigarren igande huntakoz

soilki izan behar. Eguneroko ekintzetan aldarrikatu behar da, hitz horiek ahal bezain epe laburrean gauzatzeko. Dena den, euskararen ospakizun hau mezperatik hasi zen

Saran, gauazko jaialdi bikain baten bitartez.

## Hauteskundeak

Oraiko hauek diputatuen hautatzeko dira eta lehen itzulia maiatzaren 25ean iraganen

da. Frantziako lehendakariaren nahiaz urte batez aurreratuak izan dira. Alderdi guztiak sartu dira borroka politikoa huntan eta hurrengo aldia emaitzak emanen ditugu.

**BAZTAN**  
ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km  
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**HERRIKO ETXKO**

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdioko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

**EGUN NABARMENAK**  
AHAZTEZINAK  
EGITEN DITUGU

**FOTO MENA**

KALE NAGUSIA 4  
TEL ETA FAX: 45 08 25  
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40  
TEL: 58 01 55  
ELIZONDO

ZURE JAUNARTZE  
EGUNEKO ARGAZKI  
HOBERENAK

ESKATU ORDUA

**LESKA**



# 1. AZOKA-KOMERTZIALA MUGAN 97

## 1º FERIA - COMERCIAL MUGAN 97

ARTALEKU KIROLDEGIA  
1.997ko MAIATZAK 31, EKAINAK 1


POLIDEPORTIVO ARTALEKU  
31 DE MAYO, 1 DE JUNIO 1.997

### 60 MERKATAL STAND

GIZON-EMAKUMEEN MODA - ZAPATAK - OSAGARRIAK - LURRINDEGIA - BITXIDENDA - KIROLA - LENTZERIA

SUKALDEAK - OPTIKA - AUTOAK - ATEAK - MEZULARIAK - OPARRIAK - ARGIZTAPENAK - HIFI - TB - BIDEOR

BRAGAKIAK - LOBEAK - MOBLEAK - DEKORAZIOA - PINTURAK - KRISTALDEGIA - LIBURUENDIA - SENDABELARRAK - HIZKUNTZAK



# mugan

asociación de comercio de **IRUN**

**MUSIKA AKTUAZIOAK**

**MODELO-DESFILAK**

**ZOKETA ETA LEHIAKETAK**



**Irún**  
*Sin ir más lejos.*

ERROTULOAK - BIDAIK - ARTISAUTZA - PUBLIZITATEA - ASEGUROAK - ESKULANGINTZA - PAPERTEGIA - EHUNAK

SEKULAN IKUSGAI JARRI DEN MERKATALGUNERIK HAUNDIENA, IRUNGO KOMERTZIOAREN IRUDIRIK HOBERENA ESKAINIZ

KOLABORATZAILEAK

IRUNGO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE IRUN

GUIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

EL DIARIO VASCO

  
Kutxa

  
Radio  
Irún

  
SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGUROAK

## EZKONTZAK

Miguel Angel Maia Mitxelena eta M<sup>a</sup> Asuncion Aizpurua Jaimerena, Lesaka eta Gartzaingoa, maiatzaren 3an.

Francisco Javier Otxandorena Juanotena eta Lucia Irigoien Zelaieta, Beintza-Labaien eta Zigakoa, maiatzaren 10ean.

Alexandre Lereboure eta Laetitia Caumont, Ziburukoak, maiatzaren 1ean. Jesus Vicente Añez eta Gloria Castillejo Chumillas, Orense eta Cuencakoa, Beran, maiatzaren 3an.

## JAIOTZAK

Gorka Peña Lournaga, Elizondokoa, apirilaren 23an.

Haritz Aitor Padura Etxandi, Arraiozkoa, apirilaren 20an.

Sergio Oskoz Otxandorena, Almandozkoa, apirilaren 30ean.

Leire Organbide Elizagoien, Arraiozkoa, maiatzaren 5ean.

Joanes Lameirinhas Ortuoste, Elizondokoa, maiatzaren 5ean.

Jon Salaberria Zabala, Goizuetakoa, apirilaren 25ean.

Leire Olaizola Iarza, Goizuetakoa, maiatzaren 4an.

Denis Leiza Pereira, Lesakakoa, apirilaren 18an.

Julen Palenzuela Etxepare, Lesakakoa, apirilaren 28an.

Maitetxu Merino Arretxea, Lesakakoa, maiatzaren 8an.

Aitor Artola Ustoa, Leitzakoa, apirilaren 15ean.

Ander Eskudero Orbegozo, Leitzakoa, apirilaren 11n.

Kevin Etxeberri, Sarakoa, apirilaren 12an.

Aritz Ibarra Dagerre, Berakoa, apirilaren 24an.

Oihana Eltzaurdia Ariztia, Berakoa, apirilaren 28an.

Elixabet Elizondo Lujanbio, Arantzakoa, maiatzaren 6an.

Joseba Irazoki Goienetxe, Etxalarkoa, maiatzaren 1ean.

Bingen Larrea Lekuberria, Zubietakoa, maiatzaren 6an.

## HERIOTZAK

Francisco Molina Morcillo, Almanadozen, apirilaren 29an, 52 urte.

Victoria Etxeberria Agerrebere, Gartzaingoa, maiatzaren 3an, 88 urte.

Jose M<sup>a</sup> Elizaintzin Larregi, Gartzaingoa, maiatzaren 5ean, 65 urte.


Urbano Ibañez Romo, Oronozkoa, maiatzaren 9an, 71 urte.

Margarita Elgorriaga Astibia, Lesakakoa, maiatzaren 10ean, 96 urte.

Juana Jauregi Urkia, Lesakan, maiatzaren 11n, 93 urte.

Joaquina Antonia Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, maiatzaren 5ean, 41 urte.

**ttipi-ttapa**



**Bidali**

TTIPI-TTAPA

**herritik kanpo  
bizi diren lagun edo  
famiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

**631188**

### ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haurgarbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez achantzi familiaren liburuxka!**

**IRUÑEKO KUTXA**



Albistur, 39-K • 627542  
**LESAKA**

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •



**Margarita  
ELGORRIAGA ASTIBIA**  
(Joxemari Irazokiren alarguna,  
Martintxeberriko amautxi)

Alkaiagan hil zen, 1997ko maiatzaren 10ean

*Zure leihatik begira  
ikusiko gaituztu  
ikusiko gaituztu*

Irazoki Etxegarai, Taberna Irazoki, Artieda Irazoki, Irazoki Altzугuren eta Irazoki Agirre familiak.

BERA, 1997ko maiatza



## Neska-mutikoen elkartrukea

«Badugu Gasteizko ikastetxeetan 100 bat neska-mutil euskara hobetzeagatik, egunero giroa aldatuz eta ondo igaro nahian zuen etxera joateko prest daudenak aste-bete pasatzera lagun berriak eginez, zuen semealabak». Horrelaxe azaltzen dute Gasteiz Euskalduna elkartrukeok elkartruke proiektu honen funtsa. Horren trukean, hemengo neska-mutikoen aukera izanen zuten Gasteizen bertze astebete pasatzeko. Eskeintza hau Lehen Hezkuntzako 4., 5., eta 6. mailakoei zuzendua dago, eta uztailen edo abuztuan egiteko aukera luzatzen dute antolatzaileek. Aurrera-

go, elkartrukea bi familien artean zehaztuko litzateke, zenbat egun, zein egunetik ze egunera...

Gasteiz bezalako hiri erdaldun batean euskaraz aritzeko haurrek izan ditzaketen zailtasunak eta trabak ahan-tzi eta giro euskaldun batean murgiltzea da helburua, eta beraz, ezinbesteko baldintza da familia eta herria euskalduna izatea.

Herritik hirira eta kaletik mendira trukaketa hori denentzat ona dela azpimarratu nahi dute GEU elkartekoen, kontua bakoitzak duena ematea baita. Interesatuak telefono honetara deitu dezakete informazio eske: (945)222153.



Fernando Perez de Viñaspre eta Andres Iñigo Ariztegi

## Malerrekako 3.000 etxe eta toki-izen biltzen dituen liburua atera dute

Andres Iñigo iturendarra da liburuaren egilea

Andres Iñigo Ariztegi iturendarrak Malerrekako herri eta etxeen toponimiari buruzko tesia argitaratu berri du, zeinetan Doneztebe, Zubieta, Ituren eta Elgorriagako 3.000 toki eta etxe-izen biltzen dituen. «*Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezcurra)*» izenburupean eman du ezagutzera bere lana, Hizkuntz Politikako arduraduna den Perez de Viñaspreekin egindako prentsaurrean.

Iñigok adierazi zuenez, «*aspaldian Leringo Santesteban izeneko haranak azpisailkapen administratibo ezberdinak zituen, eta Ituren, Zubieta eta Sunbillak, adibidez, herri izateko eskubidea lortu zuten*». Liburuak ezaugarri historiko batzuk ere biltzen ditu, beraz. Hamar urtez egindako lanari esker, eskualde honetako 12.000 etxe eta toki izen bildu zituen, eta behin hoiek normalizatu eta sailkatu ondotik, 3.000 sartu ditu liburuan. Fernando Perez de Viñaspre Hizkuntz Politikako zuzendariaren hitzetan, «*irakurlearentzat gida ezinhobea da*».

## Artoa edo maiza?


«*Nekazal teknologia eta artoa Baztan-Bidasoan*» izenburupean erakusketa burutu du Lekarozko ikasle-irakasle talde batek Elizondoko Arizkunenean

Maiatzaren 5etik 22ra bitartean zabalik egon da Lekarozko institutoko ikasle-irakasle batzuek elkarlanean prestatu duten erakusketa hau. Gaugerero berandu xamar bada ere, erakusketaren nondik norakoak azalduko ditugu labur-labur:

Batetik, artoaren inguruko hainbat kontu jorratzen saiatu dira. Artoa, gure landa eta baratze-tako bertze hainbat landare bezalaxe, ameriketatik ekarria izan zen bere garaian. Lehenagotik mijo edo artattikia deitutako bertze espezie antzeko bat bagenuen hemen, ogia egiteko erabiltzen zena ere, baina gaur egun desagertua dena. Hala ere, Malerrekako zenbait txo-

kotan artoari «*maiza*» erraten diote oraindik ere, benetako «*artoz*» bereixteko edo. Bertako nekazaritzan garrantzi handia izan zuen artoaren sarrerak, eta hori isladatu nahi izan dute bi aste hauetan Elizondoko Arizkunenean ikusgai izan dugun erakusketa honekin.

Bertzetik, artoaren eraginez laborariek beren tresna eta teknikan burutu zituzten berrikuntzak aztertu dituzte Lekarozko IEE 2.A eta B taldeko ikasleek, teknologia eta giza zientziko irakasleen laguntzarekin. Beraiek aipatu dutenez, «*artorearen sarrerak nekazaritzan izan zuen eragina zer nolakoa izan zen erakutsi nahi izan dugu*».



### ARIZKUNENEAOKO KULTUR AKTIBITATEAK

#### ► Maiatzaren 23tik ekainaren 7 artio:

Zeramikazko eskulturen erakusketa, Virginia Bosch-en eskutik, arratsaldeko 7etatik 9tara.

#### ► Maiatzaren 23tik ekainaren 7 artio:

Patxi Elizetxeren margo erakusketa, 7etatik 9tara.

#### ► Maiatzaren 27an:

La Pera Limonera antzerki taldeak, Quo no vadis antzeztuko du goizeko 11,30etan, gazteei eskeinitako saioan.

## DATUAK.....

1 Bigarren mailako erremon-te txapelketaren finala galdu zuen Altuna II.rekin bikote eginez, Iñigo eta Iriarteren kontra (33-40).

2 Iñaki Martinez Lizaso, orain 24 urte jaio zen Donezteben. Eskualdeko erremon-telari guziak bezala, laxoan ari-tua da ttikitian.

3 Eskubaloian Ohorezko Mailan aritzeko eskaintza bati uko egin zion 17 urte zituela, erremon-tean hasteko.

4 19 urte zitue-la profesiona-letan debutatu zuen eta enpresak bere aldeko apostua egin duela onartzen du.

5 Bi urteren buruan lehen partiduetan finkatzea da bere helburua.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
ZALDUA


➔ **Iñaki Martinez LIZASO** Doneztebeko erremon-telaria

# “Enpresak aukera aunitz ematen ari dizkit, nik ere erantzun dudalako”

«Dauden txapelketa guzietan bigarren gelditua naiz, baina ez dut sekulan txapel bat irabazi» dio Iñaki Lizaso erremon-telari doneztebarrak bere palmaresaren berri eskatzen zaionean. Maiatzaren 4an Galarretan jokaturako 2. mailako finalean ere bertze horrenbertze gertatu zitzaion: «ez nengoen urduri baina ez zitzaidan deus ongi atera, egun beltza izan zen. Normalean sakez 8-10 tantu ateratzen ditut eta lehengoan hiru bertzerik ez eta hirufalta, gainera. Materiala ere arras txarra zen». Ez zen, halere, jokatu duen partidurik garrantzitsuena. Joan den urtean Nafarroako 1. mailako finala jokatu zuen Elizalderekin batera, Martin Lekunberri eta Etxeberriaren kontra.

## SAKE GAIXTOA ETA IZAERA URDURIA

Halere, etorkizunari begira itxaropentsu ageri da doneztebarra. «Enpresak aunitz zaindu nau, denbora gutti daramat baina abudo igo-tzen ari naiz, aukera aunitz eman dizkidate es-telaretan-eta jokatzeko, nik ere erantzun dudalako, noski». Bere helburua, datozen bi urte-etan lehen partidu haue-tan finkatzea litzateke. «Ez legoke gaizki, gaz-



«Finaletan suerte txarra izan dut baina noizbait ailegatuko da txapela»

tea bainaiz oraindik».

Erremon-tean aritze-ko duen akatsik nabar-menena bere izaera urduria da eta horren ondorioz, «ahal dudana baino kantxa zati haundi-agoa estaltzen saiatzen naiz». Ezaugarri onena, berriz, txokotik egiten duen sakea da, bere ustez. «Atzelarien

artean espektakularre-na naizela ere erraten dute». Pilotari konple-toa dela uste du Iñakik.

Momentu honetan Doneztebeko hirugarren erremon-telaria dela erran daiteke eta aunitz-tan jokatu du Koteto Ezkurrarekin eta Patxi Etxeberriaren kontra. «Koteto munstro bat da, sekulakoa, erremon-tean aritzeko jaio da. Patxi eta ni, berriz, arian ariz erremon-telariak egin gara. Patxi, edozein kiroletan jokatzeko jarri eta onena izanen

litzateke, baita kanike-tan ere. Futboleko Osasuna Promesasen aritu zen. Patxi eta nik elkar-ren arteko itxura gehi-ago daukagu, kirolariak gara».

Lizasok Ezkurrare-kin jokatu zuen laxoan herriko taldean eta orain ere igandero joaten da partidua ikustera, «ez dut bat ere galtzen». Aurtengo txapelketako faboritua Donezte-be A dela uste du. «Beti horrela ikusten ditut, baina sorpresak ere izan daitezke». ■

► *“Patxi Etxeberria eta ni, arian ariz, erremon-telariak egin gara, baina Koteto Ezkurra erremon-telari izateko jaio da, munstro bat da”*

**BOITE**  
*fronton*



Gure Txokoako neskek, Kontxan irabazitako sarietara iristen dira.

# Gure Txokoako neskek bigarren Kontxako futbol txapelketan

Hirugarren urtea zen Donostiako lehiaketan parte hartzen zutela

**Berako** Gure Txokoako neskek azpitxapeldun suertatu dira Donostiako Kontxa hondartzan jokatu den futbol txapelketan. Beratarrek, 12 eta 18 urte arteko nesken mailan zeuden bertze zazpi talderekin batera.

Txapelketa borobila egin bazuten ere, maiatzaren 4an jokaturako finalean 3-1 galdu zuten San Ignacio taldearen aurka. Hondartza berean bertze hamahiru final jokatu direla kontuan hartuz, jendez gainezka ageri zen Kontxa egun horretan.

Joakintxo lantzi entrenatzaileak gogoratu duenez, «aurtengoa hirugarren aldian zuten parte hartzen gurela eta dudik gabe, honako hau izan da emaitzarik onena. Halere, datozen urtetan txapelkunaren koparen bila joanen gara, noski».

Gure Txokoa elkar-teak ere, infantiletik jubenil maila arteko neska hauek eta beraien entrenatzailea zoriondu nahi ditu lerro hauen bitartez «eta sari gehiago lortzera animatu».

## Banan Bana

Karmele Pikabea  
Agurtzane Zelaieta  
Bakarne Errandonea  
Gurutze Villanueva  
Itsaso lantzi  
Amaia Ruiz  
Izaro Mitxelena  
Itsaso Villanueva  
Idoia Unson  
Ana Pikabea  
Vanesa Torres  
Naia Semper  
Miren Zudaire  
Maider Juarez

## Baztan futbol taldeak

Preferente mailan jokatu beharko du datorren urtean. Hau idazterakoan, liga oraindik bukatu ez bazen ere, 3. mailan segitzeko aukera guziak galduak zituen matematikoki.

## Beti Gazte futbol taldea

ere egoera larri xarmarengan dabil. Hau idazterakoan bi partidua falta ditu liga bukatzeko eta jautsiera postuan dago. Ea Preferente mailari eusten dion.

## Luis Mari Belarra doneztebarra nagusitu zen Arria V.ren kontrako desafioan

Luis Mari Belarra doneztebarrak irabazi zue maiatzaren 4ean Errezilgo Xabier Orbezo Arria V.aren kontrako aizkol apostua, honenbertez, jokoan zeuden 800.000 pezetak poltsikoratuz. 600 bat ikusle hurbildu ziren Doneztebeko frontoira, herritarren lehen apostua ikustera eta gustora

ateri ziren. Gipuzkoarrak 12 kanaerdiko zituenez, Belarrak, 11. Doneztebarrak adierazi zuenez, «nahiko ongi kontrolatu dut nere burua eta gustura aritu naiz; kontent nago, ez bainuen espero honelako denboran mozte. Bertzalde, hasi berria naizenez, ez nuen presio haundiegirik». Halere, seigarren eta zazpigarrenborretan aunitz sufritu zuela onartu zuen.

	DENBORAK ENBORREZ ENBOR	
Enbo.	Belarra	Arria
1.	1'33"	1'23"
2.	3'38"	3'10"
3.	5'42"	5'05"
4.	8'12"	7'22"
5.	10'54"	9'50"
6.	13'44"	12'03"
7.	16'26"	14'52"
8.	18'55"	17'29"
9.	21'56"	20'24"
10.	24'48"	23'26"
11.	27'25"	26'18"
12.	---	29'33"

Luis Mari Belarra pozik, bere lana akitu ondotik

Argazkia: LEGARRA

## Laxoa txapelketa

Hasierako ligaxkako azken jardunaldia jokatu da igande honetan; maiatzak 25.

### 10. ihardunaldia (V-25)

A Taldea:  
Doneztebe A-Ciiz B (17,00)  
Doneztebe C-Araioz (12,00)  
Atsedena: Doneztebe B  
B Taldea:  
Oitz A-Irurita C (12,00)  
Irurita A-Elizondo (17,00)  
Atsedena: Irurita B

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### ALMANDOZ

► **Maiatzaren 28tik ekainaren 1era.** Xehetasunak 23. orrialdean.

## KONTZERTUAK

### BERA

#### ► Maiatzaren 23an

Ezpal eta Señor No taldeen kontzertua Pui ostatuan. Ondotik, «Bloody Mary» diska-dendakoek paratuko dute musika.

#### ► Maiatzaren 31n

Koma, PiLT, Vomito eta Ezpal taldeek joko dute, Gazte Asanbladak antolatu duen kontzertuan. Suhiltzaileen parkean, gaueko 10etan. Sarrera 500 pta.

## ANTZERKIA

### BERA

#### ► Maiatzaren 24an

7,30etan Kultur Etxean Harkaitz Cano eta Ur Apalategiren testuen antzespena.

#### ► Maiatzaren 26tik

**28ra** Mugaz Gain antzerki emanaldiak Kultur Etxean.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### ► Maiatzaren 23tik ekainaren 7ra

Arizkunenea kultur Etxean, Zeramika Erakusketa izanen da, Virginia Bosch-en eskutik. Baita Margo Erakusketa ere, Patxi Elizetxeren lanekin. Arratsaldeko 7etatik 9etara.

# AGENDA PRAKTIKOA

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 10.200 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 270 pta./kilo
- **Zerramak**: 170 pza./kilo bizi-rik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
  - **Idixkoak**: Pza./kg. Kanal
- |       |       |     |
|-------|-------|-----|
| Extra | ..... | 520 |
| 1.koa | ..... | 490 |
| 2.koa | ..... | 460 |

- **Urruxak**: Pza./kg. Kanal
- |       |       |     |
|-------|-------|-----|
| Extra | ..... | 530 |
| 1.koa | ..... | 500 |
| 2.koa | ..... | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkoten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

#### • Aretze tikiak

(15 egun inguruak):

**Nabarrak**: urruxak 16.000 eta idixkoak 25.000 Pta.

**Mestizoak**: urruxak 24.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

#### Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### Leitzako Kultur Astea

Egunotan ospatzen ari da Leitzako Kultur Astearen XIX. edizioa, eta igandearte luzatuko da.

Gaur bertan, eta arratsaldeko 8etatik aintzineria, objektu fiskalari buruz solasean ariko dira zenbait intsumitu gazte. Biharko goizean Bertso Paper Lehiaketa izanen da zinean, eta bazkalondan, *Horizisaurioak* taldearen eskutik kale animazioa (4tan txokolatada). Arratsean, berriz, Jazz Talde baten aktuzio izanen dugu ikusgai. Asteburuan zehar ere hainbat ekitaldi izanen dira,

hien artean, Estitxu Arozena eta Maddalen Lujanbioren bertso saioa edo Imuntzo eta Belokiren kontzertua. *Jarauta 69* txaranga ere Leitzako karriketan barna ibiliko zaigu larunbat arratseko giroa berotzen. Biharamonean, Herri Bazkaria antolatu dute eguerdiko 2,30etan. Ume, gazte, eta helduentzat eskeintza zabala beraz, lau egun hauean Leitzan.



Leitzako frontoian eskulangintza erakusketa izanen da igande goizean.

## DISKAK



«Hobe behin gorri ezenez beti hori»

BALERDI BALERDI  
GOR

Balerdi Balerdi iruñearren hirugarren lana da honakoa, eta bertze biak bezalaxe, Gor diskearen eskutik heldu zaiguna. Baztango erranera zahar batetik atera dute izenburua, eta originaltasuna bilatzen dute diskoak biltzen dituen 13 kantuetan ere. «Z.Z.Z.», «Kotxe fantastikoa» edo «Bertso berriak gure buruari jarriak», gisa horretako izenburu xelebreak pa-

ratu dizkiete abestietako batzueri. Bertzalde, *Morai* bakarlariaren bertsio bertsio bat ere sartu dute konpaktoan, grabatzerakoan kolaboradore lanak egin dituela probetuz. Nolanahi ere, berrikuntza nagusia soinuaren aldetik somatzen da, kantuak azkartu egin dituzte, eta koroetan ere aurrekoetan baino gehiago saiatu dira.

## JAKIN BEHARREKOAK


### Elektrogailuen konponketa

Elektrogailuen konponketa-  
ren inguruan erreklamazio  
eta galdera aunitz egiten diz-  
kigute gure bulegoetan. Gaiz-  
ki egindako moldaketak edo  
faktura direla-eta izaten di-  
tugun buruhaustek ikusita,  
hona hemen elektrogailue-  
kin ezbeharrak ez izateko zen-  
bait aholku:

Legeak dioenez, elektrogai-  
lu berriek 6 hilabeteko gara-  
ntia izanen dute, eta epe  
horretan konponketa gastu  
guziak saltzaile edo egilea-  
ren kontu behar dute. Jaki-  
na da garrantia hori luzatu  
egin ohi dela, baina orduz-  
tik mugatu ere mugatzen de-  
la kontutan izan behar dugu.  
Horrexegatik, eresketa egi-  
terakoan data paratu eta si-  
natu ondotik, ahantzi gabe  
garrantia eskatu.

#### Konponketak egiteko

Elektrogailuen konponketa  
guziek 3 hilabeteko garrantia  
dute. Hortaz, garrantian da-  
goen zerbait moldatzen era-  
maten badugu, konponketa  
horren justifikantea hartu,  
hurrengorako baliogarria izan-  
en baita; lehenago ere kon-  
pondu dutela eta garrantian  
dagoela frogatuko duzu ho-  
rrela.



Elektrogailu berriek 6 hilabeteko garrantia izaten dute

Garrantian dagoen aparatua  
izorratuz gero, asistentzi tek-  
nikoko zerbitzu ofizialera  
edo saltzaileari berari era-  
man behar zaio. Konpondu  
aitzinetik, ordea, aurrekon-  
tuta eskatu.

Ordezkatzen diren piezak be-  
rriak izan beharko dute, eta  
kendutakoak eskatzeko esku-  
bidea du kontsumitzaileak.

*Garrantian dagoen  
aparatua hondatuz  
gero, asistentzi  
teknikoaren zerbitzu  
ofizialera edo  
saltzaileari berari  
eramane behar zaio.*

#### Zenbait adibide:

-Erosi dugun batidora hon-  
datu egin zen garrantiaren bar-  
ne zegoelarik. Dendara joan  
eta dendariak zerbitzu ofi-  
zialera bidaltzeko erraten di-  
gu. Legeak dioenez, hala ere,  
saltzaileak eta fabrikanteak  
arduratu behar dute kontsu-  
mitzaileei gertatutako ara-  
zoez.

-Ikuzgailua edo labadora ero-  
si eta lehenabiziko bi urte-  
tan bartz aldiz konpondu  
behar izan zuten. Horren-  
bertze diru gastatu ondotik,  
oraindik gaizki funtziona-  
tzen zuela ikusita gure bule-  
goetara etorri ziren kexatze-  
ra. Kontsumitzaileen babese-  
rako legeak erraten duenez,  
behin eta berriz izorratzen  
den produktua aldatu behar  
da.

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

## LIBURUAK



«GAUAK ETA HIRIAK»  
Ur Apalategi  
ELKAR

Hiru gazte dira *heziketa senti-  
mental* honetako protagonistak,  
Felix, Antton eta Muriel, eta hiru-  
ren artean eratzen diren harreman  
mota guztiak dira nobelako gaia:  
maitasuna, adiskidetasuna, men-  
pektasuna, jelsia, gorro-  
toa... Bada hor triangulu-istorio bat,  
baina betiko triangulua baino as-  
koz konplexuagoa da hemen kon-  
tatzten zaiguna, konplexua baita,  
izan, pertsonen garunetan sortzen

diren sentimendu posibleen na-  
hasketa-aukera. Idazlea horren  
gaztea izanda, harrigarria egiten  
zaio irakurleari zein sakon eta bar-  
netik ezagutzen dituen giza erla-  
zioen miseriak, nahi eta ezinak,  
mozorro-jokoak, jokabide uste-  
lak... Ur Apalategiren bigarren la-  
na dugu hau, Unai Goiaskoetxe-  
arekin batera «Erdi guneak» poe-  
sia liburua karrikaratu baitzuen  
lehenagotik.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MENDI IRTEERAK

### BAZTAN

#### ► Maiatzaren 25ean

5 milak. Belate, Oko-  
lin, Saioc, Okoro, Ar-  
gintzu, Albaitza, Urba-  
llo, Elizondo ibilbidea  
eginen dute Baztango  
Mendigoizaleek.

#### ► Ekainaren 1ean

Aitzkorriara joanen dira  
Baztango Mendigoiza-  
leak.

## ANTZERKIA

### ELIZONDO

#### ► Maiatzaren 27an

gazteendako  
antzerkia izanen da  
Arizkunenean. *La Pera  
Limonera* taldeak *Quo  
no vadis* antzeslana  
eskeiniko du goizeko  
11,30etan.

## OSPAKIZUNAK

### LEITZA

#### ► Maiatzaren 17tik

**28ra** kultur Astea.  
Erakusketak, kontzer-  
tuak, diapositiba  
emanaldiak, mahain-  
guruak, herri bazka-  
ria... izanen da.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

#### ► Maiatzaren 19tik 25era

Arantza, Sunbilla, Eli-  
zondo (Lezaun) eta  
Goizuetan.

#### ► Maiatzaren 26tik ekainaren 1era

Lesaka, Ituren, Elizon-  
do (Iturralde), Leitza eta  
Goizuetan.

#### ► Ekainaren 2tik 8ra

Bera, NARBARTE, Elizon-  
do (Lezaun), Urdazubi  
eta Goizuetan.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

Hegoaldetik deitzeko 948-1parraldetik 00-34-48

# 631188



**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. ☎ 630395 (deitu gaueko 9etatik aitzinera).

**BERA.** Pisua salgai. 8.600.000 pezeta. ☎ 234830.

**IGANTZI.** Pisua bere garaje eta sotoarekin salgai. ☎ 637818.

**DONAMARIA.** Baserria salgai, bere baratze eta borda ttikiarekin. Sotoa, etxebizitza, ganbara eta atarian larraina. ☎ 510540

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ELIZONDON.** Pisu edo etxe merkea erosiko nuke. ☎ 453106.

**BAZTAN-MALERREKAN.** Etxea erosiko genuke. ☎ 451746 (lan ordutan) eta 452187 (gauetz).

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**ELIZONDO.** Pisua errentan emanen nuke. Mobleztatua, kalefakzio eta telefonorekin. ☎ 450003.

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emanen nuke, Eztegar pasealekuan. ☎ 630270.

**LEITZA.** Pisua alokatzen da. ☎ 234830.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**BAZTAN-MALERREKAN.** Etxea edo baserria errentan hartuko genuke. ☎ 451746 (lan ordutan) eta 452187 (gauetz).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**BERA.** Garaje bat salgai Postetxearen ondoan. ☎ 630466 (arratsetan, 9etatik aitzinera).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA.** Garaje bat errentan emanen nuke, Albistur karrikan. ☎ 637820.

## LURRAK/ORUBEAK

### 113 EROSI

**BORTZIRIETAN.** 1.500 m<sup>2</sup>ko lur-eremua erosiko nuke, laua eta arbol zahar zenbait lur eta urarekin. Merke mesedez. ☎ 387052.

**BAZTAN-MALERREKAN.** Lur eremua erosiko genuke. ☎ 451746 (lan ordutan) eta 452187 (gauetz).

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

## Juanjo ERRO

Zurgin lanak orokorrean  
Moble zaharrak  
konpontzen ditugu

• **LESAKA** •  
☎ 989.800249

## zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR  
☎ 948-387017

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

**Kartelak,** buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188 Bulego ordutan.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Neska bat** eskeintzen da arratsaldetan etxeko lanak egiteko. ☎ 450923

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Rieju motoa** salgai, 50z.k.koa. ☎ 631045 (arratsetan).

**BERABI** tailerrak  
☎ 631445 • BERA

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Ford Escort 1.6, SS-S  
Nissan Patrol, NA-P  
Nissan Terrano IITD, NA-AJ  
Nissan Patrol Top-Line  
Isuzu Trope 2.8TD, SS-AJ

**Opel Ban** Diesela salgai.  
☎ 510460 (3etatik 7etara).

**SAMPI ARAGON**

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Ford XR2 • Audi 80 Diesela  
Renault Espace • Seat Ibiza  
Renault 5 • Mitsubishi pajero  
☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Jeep Comando** Diesela salgai, 60.000 km. ☎ 510558 (gauetan).

**ZALAIN MOTOR**  
☎ 63 11 57 • BERA

Stockean dauden ibilgailuen **LIKIDAZIOA**

Prezio bikainak:  
50.000 ptatik goiti

**Dieselak**  
Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.

**Gasolina**  
Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.  
Ford Orion 1.4 4 atekoa.  
Rover Montego 2.0 4 ate, 90koa.  
Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.

**GANIX**  
Tailerrak

Iburlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA  
**IBILGAILUEN MEKANIKA**  
ETA ELEKTRIZITATEA  
**FIAT** Zerbitzua

**SEMPER ANAIAK**

Tfnoa: 630621 • BERA

## Bigarren eskuko autoak

- R-19 GTD, 94koa, estrekin
- R-21 GTS, 5 ate, 89koa
- R-19 TSE, 90ekoa, estrekin
- R-19 Chamade 1.4, 89koa
- Super5, hiru ate, 90ekoa
- R-11 GTD, 87koa
- R-9 TSE, 84koa
- R-9 TSE, 86koa
- R-21 GTS, 87koa
- Fiat Uno 45, 89koa

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

- Lada
- Kadett 1.8i
- Corsa, Super5 eta Clio Dieselak.
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

**BOAN TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 63 06 23 • BERA

## ANIMALIAK


### 601 SALEROSKETAK

**Arraza oneko** aharia salgai Leitza. Kasik adarrak gabea. ☎ 510391. Eguerdi edo iluntzetan.

**Behi gorri** ernaria salgai, lehen umealdikoa. ☎ 630116.

**Txakurkumeak** salgai, Setter eta Braco nahasketa.





## Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

**631188**

Merkeak. ☎ 630449

**Txakurkumeak** salgai, Collie pedigiarrekin. Prezio onean. ☎ 943-627158 (arratsetan).

**5 asto** salgai. ☎ 510198.

### DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Enpakadora salgai** Class markakoa eta urte batez bakarrik ibilia. ☎ 630543

**Esne tankea** salgai, aski gutti erabilia. ☎ 387091 (Bera)

**Belarra pikatzeko** diskoa, zoriongarria banatzeko tresna eta belarra biltzekoa salgai. ☎ 393054 Deitu larunbat eta igandetan eguerdiko 2tan eta arratsaldeko 8tatik 10etara.

Etexz aldatzeagatik, **sukalde-mobleak, elektrogailuak, mahaia eta aulkiak** salgai, berri-berriak eta egoera onean. ☎ 451589 (3etatik goiti).

**Sukaldea** erosiko nuke, egurrarekin ura berotzen duten horietarikoa. Honeira idatzi: Xabi. Aitzperako Borda. Labaien.

**Esku-eskanerra** salgai, Trust markakoa. ☎ 630305 (arratsaldeko 3tatik aitzin).

**Kanpin denda** salgai, leihoak, bi gela eta abanzea. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 637294-637158 (Patxi).

### DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

**Betaurreko batzuk** agertu dira Berako Alzate plazan, bere funda eta guzi, maiatzaren 11n. ☎ 631211 (arratsez deitu).

### HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Oreretako Tomas** Ibarrari: Zorionak. Familia honetan ez da inor ezkontzen, ea zu animatzen zaren. Jaia eskertuko genuke. La famy.

**Lesakako** Irain eskolako: mila esker Teleskola ikustera gonbidatzeagatik. Haggitz polita iduritu zitzaigun. Iragarkiak eta trikiritria gustatu zitzaigun gehien. Igantziko eskolakoak.

**Arrasateko** Koldori: Reigs erretzeak ez du esan nahi tabakoa erretzeari uko egin diozula. Zorionak. La famy.

**Iosu** alias «Rontxu»: Zorionak. Ea NAN berriko argazkian pertsona bat ematen duzun. La famy.

**Mugairiko** Joseba Berro ri: oso ona zaude. Neska baten partez.

**Juanmanuel** Artola bera: zorionak, 18 urte beteko dituelako maiatzaren 23an. Ondokoen partetik.

**Arrasateko** Ander-i: Ostatua ez dute bere lekutik mu-

## URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Mª Pilar Goizueta Goizueta** goizutarrak urteak bateko ditu maiatzaren 15ean. Zorionak senarra eta seme-alaben partetik.



**Xabier Olazar Mariezkurrena** elgorriarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak aita, ama eta Olaiaren partez. Muxu bat.



**Jaione Villares** urdazubitarrrak 16 urte bete ditu maiatzaren 15an. Zorionak eta muxu bat Urdazubiko nesken partez.



**Kepa Astibia Fernandez** lesakarrak maiatzaren 19an bete ditu urteak. Zorionak Josebe eta Julenen partez. Muxu bat.



**Leire Ormaetxea Igarzabalek** 4 urte beteko ditu maiatzaren 31n. Zorionak Lesakoko familiaren partez.



**Jon Eneko Iturria Cuartero** beratarrak hiru urte beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak Beñat eta familia guziaren partez.



**Julen Alzugarai Urzelai** beratarrak urtea egin du maiatzaren 20an. Zorionak Esther, Jesus, Irene eta Mertzexen partez.



**Julio eta Daniel Lukanbio Gonzalez** aranztarrek apirilaren 12an 12 urte bete dituzte. Zorionak bere familiaren partez.



**Txarli Duarte Hueso** lesakarrak maiatzaren 24an 16 urte beteko ditu. Zorionak Zamo, Unai, Mari, Patxi, Monika eta gurasoak.



**Mª Jesus Goia Telletxea** lesakarrak maiatzaren 28an urteak beteko ditu. Zorionak familiaren partez.



**Itxaro** beratarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Zorionak bere lehengusu eta bere ataxi eta amaxiren partez.



**Idoia Maritxalar Errandonea** lesakarrak, ekainaren 12an beteko ditu 12 urte. Zorionak eta muxu bat polita!



**Izaskun Rodrigex Maritxalar** maiatzaren 24an beteko ditu 14 urte. Zorionak eta segi beti bezain polita!



**Luis Vicente Otin** leitzarrak maiatzaren 13an bete ditu urteak. Zorionak Iker eta Aitorren partez.



**Goretti Zubillaga Goñi** leitzarrak ekainaren 1ean 6 urte eginen ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Antton Urkiola Gordovil** leitzarrak maiatzaren 24an 8 urte eginen ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Jon Zozaia Escudero** goizutarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak zure aita eta amaren partez.



**Asier Jaunsaras Migeltoarena** almandoztarrak 6 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak guraso eta anaiaren partez.



**Aritz Martinez Fagoaga** beratarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak familiaren partez.



**Leire Pacheco Dozagarat** elbetearrak 3 urte beteko ditu ekainaren 12an. Zorionak Aitor eta Javierren partez.



**Janire Apeztegia Etxebestek** maiatzaren 12an bete du urte bat. Zorionak familiaren eta Josunen partez.



**Edurne Pacheco Retegi** beratarrak 24 urte eginen ditu maiatzaren 28an. Zorionak eta aunitz urtez kuadrilaren partez.



**Ana Iriarte Retegi** beratarrak 24 urte eginen ditu ekainaren 7an. Zorionak eta aunitz urtez kuadrilaren partez.

gituko. Ea afal ordura helitzen zaren. Zorionak. **Ama.**

**Maite** Iturrarte leitzarrari: zorionak zure urtebetetzean (maiatzak 29) eta muxu

haundi bat Orkoendiak.

**Goizuetako** Laxaritori, zorionak bere 40. urtebetetzean, bere lagunaren partez.

**Leire** Garciari, bere gura-

soen partez, badakigu erretzen duzula.

**Maite** Bidarteri: Maite zaitut. Anonimoa.

**Maite** Intza: maite zaitut. J.P.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago badituzue pasatu gure bulegotik.



**Maitane Alzurguren Arregi** exalartarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 15ean. Zorionak gurasoen eta Unairen partez.



**Ainhoa** hondarribitarrak maiatzaren 12an bete ditu 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat Berako familiaren partetik.



**Amagoia Sanusi** elizondarrak 19 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak familia, Mikel, Alejandro eta Ekiñeren partez.



**Karmen Sukuntza** leiztarrak apirilaren 30ean bete ditu urteak. Zorionak zure familia eta Lehengusina Axunen partez.



**Axun Zabaleta** leiztarrak urteak bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak Juan Mari, M'Karmen, Inaki eta Jonen partez.



**Unai Bereau Etulain** Iturendarrak 12 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak zure gurasoen partez.



**Axun Zabaleta** leiztarrak maiatzaren 6an bete ditu urteak. Zorionak eta muxu handi bat zure koadrilaren partez.



**Maitane Eizagirre Aranburu** sunbildarrak 12 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak zure familiaren partez.



**Joseba Aldabe Etxeberria** igantziarrak urtea bete du maiatzaren 19an. Aunitz urtez Ohiane, ata eta amaren partez. Muxu bat.



**Kattalin Fagoaga Telletxea** lesakarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 15ean. Aunitz urtez, zure familiaren partez.



**Maddi Uranga Maritxalar** lesakarrak 8 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zorionak etxekoien partez.



**Gurutze Leizagoien Bizkarrondo** elizondarrak 23 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zorionak familiaren partez.



**Bittor Zelaieita Ariztegi** oiztarrak 29 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak Ugutz, Garaile, Laurendi eta emaztearen partez.



**Garaile Zelaieita Fernandez** elgorriarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Zorionak Aita, ama, Ugutz eta Laurendi.



**Xabier Iparragirre Zabaleta** leiztarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta muxu handi bat etxekoien partez.



**Xabi Juanotena** doneztebarrak 23 urte bete ditu maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu bat etxekoien partez.



**Fernando Gallego** doneztebarrak 21 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak Xabi Mix eta lagunaren partez.



**Ainhoa Larretxea Agirre** beratarrak maiatzaren 13an bete du urtea. Zorionak eta urte aunitzez gurasoen partetik.



**Alfonsxo eta Joseba Inranzo Andueza** donostiarrek 15 urte beteko dituzte maiatzaren 24an. Zorionak familiaren partez.



**Yurdan Uruñelak** 10 urte egingo ditu maiatzaren 26an. Zorionak Unai T'ren partetik.



**Oihana Txoperena Matxikotek** 8 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zorionak Beñat eta zure gurasoen partez.



**Andoni San Martin** doneztebarrak maiatzaren 26an egingen ditu 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



**Milagros Lujanbio** goizutarrak 70 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak amona. Zure semealabak eta biloba Juan.



**Juan M' Iparragirre** exalartarrak 27 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak bere familiaren partez.



**Maialen Elizalde** urtea bete du maiatzaren 20an. Zorionak Zubitako Urteipiko familiaren partez. Muxu handi bat.



**Itziar Bazterrika Arretxea** iturendarrak maiatzaren 16an 4 urte egin ditu. Zorionak bere guraso eta Peioren partez.



**Mariaxun Iribarte Zubieta** beratarrak 14 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak Izeiren partez.



**Izei Gillenea Iriarte** beratarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak etxekoien partez.



**Tere Sola** beratarrak maiatzaren 13an bete ditu urteak. Zorionak Patxiaren partez.



**Aintzane Artoia Urrutiola** 10 urte beteko ditu maiatzaren 25an. Aunitz urtez, Berako amaxi eta aitaxi tikiak partez.



**Juan Larramendi Arburua** beratarrak 80 urte egin ditu maiatzaren 21an. Zorionak bere lagunaren partetik.



**Maite Migeltorena Ursuegi** donamaritarrak 12 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak gurasoen partez.



**Maribi Sagastibeltza** leiztarrak 24 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak.



**Jontxu San Millan Bergara** elizondarrak 18 urte bete ditu maiatzaren 18an. Zorionak familiaren partez.



**Joxe M' Goia Goienetxe** igantziarrak 20 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak zure familiaren partez, «enan».



**Pascasio Muñoz Alfaro** lesakarrak 61 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Zorionak familiaren partez. Muxu handi bat, aitaxi.



**Joxe M' Goia Irazoki** lesakarrak 27 urte bete ditu maiatzaren 7an. Zorionak zure ababa eta emaztearen partez. Muxu bat.



**Aitziber Zabala Goizueta** 15 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak zure guraso eta senideen partetik.



**Patxi Zabala Goizueta** goizutarrak 15 urte bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak guraso eta senideen partetik.



**Manuel Zamorano Aguilar** lesakarrak maiatzaren 26an 27 urte beteko ditu. Zorionak Mari eta Unairen partez.



**M'Jose Bertiz Elizondo** lesakarrak maiatzaren 23an beteko ditu 34 urte. Zorionak Nerea eta Joseba iloben partez.



**Jabier Bertiz Elizondo** igantziarrak 34 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak familia guziaren partez.



**Jon Zabaleta Perurena** goizutarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Zorionak familiaren partez.



**Josu Taberna Telletxea** igantziarrak 9 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak zure familiaren partez.



**Maite Iturrarte Etxarri** leiztarrak 31 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak eta muxu bat. Familia.



**Estanis Perurena 'Olaso'** goizutarrak maiatzaren 12an bete zituen 33 urte. Zorionak familiaren partez.



**Itsaso Lujanbio Apeztekoa** goizutarrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 21ean. Zorionak Familiaren partez.



**Joanes Iriagoien Perez** exalartarrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 21ean. Zorionak familiaren partez.



**Ekhine Etxepeteleku** lesakarrak 16 urte bete zituen maiatzaren 9an. Zorionak bertso eskolaren partez.




Ongi etorria Passat berrira.

Garai berriak.  
Modelo berriak.

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea  
© 450354 / 450759  
**DONEZTEBE**



PVC LEIHOAK

UTZI ZURE ETXEAREN ZAHARBERRITZEA  
EGIAZKO ESPEZIALISTEN ESKU



**GAZTAÑAGA**  
ATEAK eta LEIHOAK



**Erakusketak:**

- Luis Mariano • **IRUN**  
Tfnoa: 943 - 62 58 88
- PRYCA Merkatal Zentrua • **OIARTZUN**  
Tfnoa: 943 - 49 25 97



Berako  
AGARA  
tirol dendan,  
errate batera,  
%10eko  
DESKONTUA  
zanen  
luzu  
kirol  
artikuluetan...

# TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu



## DESKONTUAK

### AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ ..... Bertiz ..... %10

### AUTO TALLERRAK

MENDAU MOTOR ..... Doneztebe ..... %10 Kubiartetan  
SANKI ARAGON ..... Doneztebe ..... %10 Kubiartetan  
PEDRO GARMENDIA ..... Elizondo ..... %20 Olio aldatzeak  
DATUGELAY ..... Elizondo ..... %15 Bateria + amartiguadoreak  
SANSINENA ..... Elizondo ..... %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak  
ZALAIN MOTOR ..... Bera ..... %5 Errekanbiotan

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER ..... Bera ..... %10 Matrikulan

### ARGAZKI DENDAK

GOIKO ..... Bera ..... %10 Errebelatze eta arg. materialak  
AYLA ..... Bera ..... %10 makinetan izan ezik  
MENA ..... Doneztebe/Elizondo ..... %10  
ZALDUA ..... Doneztebe/Elizondo ..... %10

### ARROPA DENDAK

SAIOA ..... Doneztebe ..... %10  
J.J. PICABEA ..... Doneztebe ..... %10 Galtza marka batzuetan ez  
TXIRRIISTA ..... Doneztebe ..... %10  
KAMAMILA ..... Doneztebe ..... %10  
PICABEA BOUTIQUE ..... Doneztebe ..... %10  
IPINGI ..... Elizondo ..... %10  
COCOS ..... Elizondo ..... %10  
KATTALINGORRIE ..... Elizondo ..... %10  
FANTXIKE ..... Elizondo ..... %10 (5.000 Patatik. aurrera)

### EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA ..... Bera ..... %3

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS ..... Lesaka %20 Elektrogailuetan %30 Antenetan  
ALTZURI ..... Lesaka %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.  
RADIO BIDASOA ..... Bera ..... %10 Deskontu baleak

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA ..... Doneztebe ..... %5 Kosmetikan %10 Oparietan  
BEATRIZ ..... Elizondo ..... %10  
MARIAN ..... Lesaka ..... %10

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK ..... Elizondo ..... %8  
ZELA KIROLAK ..... Bera ..... %10  
AGARA KIROLAK ..... Bera ..... %10 Kirol Artikuluetan  
M<sup>a</sup> LUZ SPORT ..... Bera ..... %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

### LENTZERIAK

M<sup>a</sup> CRUZ ..... Doneztebe ..... %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
MATTE ..... Elizondo ..... %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
DENE ..... Lesaka ..... %5 Kortseterian %10 Lentzerian

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS ..... Elizondo ..... %10 Liburu eta ikas-materialak  
LEGARRA ..... Lesaka %10 Lib. + ikas-matez. (1.000 Pta.)

### MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK ..... Doneztebe ..... %6  
LEIZA ..... Elizondo ..... %10 Sukalde mobletan

### OPTIKAK


OSTARGI ..... Bera ..... %10

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS ..... Bera ..... %10  
GOÑI ..... Elizondo ..... %10 (2.000 Ptatik. aurrera)  
B. ALMANDOZ ..... Elizondo ..... %10 (3.000 Ptatik. aurrera)  
NEREA ..... Doneztebe ..... %10  
OSTIZ ..... Doneztebe ..... %10

### ZURGINAK

ZIMELDI ..... Etxalar ..... %5 Sukalde eta armario enpot.



...eta  
Doneztebeko  
AMAYA  
Estetika  
Zentruan  
%5eko  
DESKONTUA  
kosmetikan  
5.000 Ptatik.  
joitiko  
rosketetan, eta  
%10 oparietan.  
eta horrela  
bertze 42  
komertzio eta

ESKATU BAT  
ZURETZAT

631100